



Etapa berri bat

Javier Casteig Barandiaranek Altsasu institutuari agur esan dio / 2-4

**Zazpigarren urtez
D eredia ez aurrera
ez atzera
dago, %81eko
matrikulazioarekin** / 13

**Nafarroako
Aurrekontuetan
sei proiekturendako
815.000 euro
aurreikusitako dira** / 7-8

**Dorraoko
kontzejuak
Meistruban etxea
goitik behera
berritu nahi du** / 9

**Miguel Angel
Aristorenak Zilarrezko
Domina jaso zuen
baina palistek merezi
dutela uste du** / 18-19

**'Rolihlahla' ipuin
ilustratua aurkeztuko
dute Joxe Aldasorok
eta Anaitz Igoak,
Etxarri Aranatzek** / 23



Javier Casteig Barandiaran altsasuarra Altsasu institutuko irakaslea eta zuzendaria izandakoa.

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Altsasu institutuaren zirrikitu txikiena ere ezagutzen du Javier Casteig Barandiaran altsasuarrak. Zaila da kontatzea zenbat irakasle eta ikasle ezagutu dituen. Haietako gehienak, nahiz eta guztien izenak ez gogoratu, kaleran agurtzen ditu. Irakasleen kasuan lagun onak ere egin ditu Casteigek. Duela 30 urte hasi zen Altsasu institutuan, eta astelehenean, azaroaren 29an, 60 urte bete zituen egunean, bere azken lan eguna izan zuen. Bizitzaren beste etapa bat hasiko du orain.

Noiz hasi zinen irakasle?

Irakasle helduen irakaskuntzan hasi nintzen, Altsasun eta Sakanan ere bai. Hor hiruzpalau urte eman nituen. Batzuk selektibitatea prestatzeko klaseak ziren, eta beste klase batzuk eskola graduatua lortzeko ziren. Altsasuko eta Olaztiko udalek

"Institutuari bizitza profesional osoa eman diot"

JAVIER CASTEIG BARANDIARAN ALTSASU BHIKO IRAKASLE ETA ZUZENDARI OHIA
Astelehenean izan zuen azken lan eguna Altsasu BHIIn hogeita hamar urtez matematika irakaslea eta hogeitabat urtez zuzendaria izan ondoren

antolatzen zuten. Gero, Burlatako institutura ordezkapen bat egitera joan nintzen. Gero Elizondora joan nintzen, bi urte. **Eta noiz hasi zinen Altsasuko institutuan?**

Hona 1991. urtean etorri nintzen. Aurten 30 urte. Urte horretan atera nituen oposizioak, eta hona praktikako urtea egitera etorri nintzen. Hurrengo urtean behin betiko plaza lortu nuen. Orduetik hemen egon naiz. Hutsik egin gabe.

Nolakoa izan zen hasiera?

Ni berez biologoa naiz edo, hobeki esanda, Biologia ikasi nuen. Baina bizitza profesional guztia matematikaren inguruan eman dut. Oposizioak atera nituen eta hona etorri nintzenean, matematikarekin hasi nintzen. Urte hartan eman behar izan nuen garaiko UBIn (Unibertsitaterra Bideratzeko Ikasturtea). Bi talde ziren: zientziak eta letrak.



EGOKI
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



BBBn (Batxilergo Bateria Balioaniztuna) lehenengo mailako bi taldeetan ere ematen nituen klaseak. Niretako dena berria zen. Matematika ez nuen ikasia, baina gaitegia ikusita aurrera egiten nuen. Baina euskaraz ez zegoen ezer. Liburu batean eta bestean bilatu behar izaten nuen. Urte hartan lan pila bat egin behar izan nuen. Gainera, informatika ere irakatsi behar izan nuen. **Informatika garai horretan sekulako berrikuntza izango zen, ezta?**

Gainera, nik ez nekien ezer informatikari buruz. Geletxo batean geunden, 32 edo 33 ikasle inguru zeuden. Hamar bat ordenagailu, bi edo hiru ikasle ordenagailu bakoitzean. Gaur egun sinesgaitza izango litzateke, ziur aski salaketa jarriko ligukete. Ez dakit urtea salbatu genuen. Beno, salbatu, bai. Baina ez dakit asko ikasi zuten. **Dereduaren lehenengo urteak ziren?** Ez, aurretik bazegoen. Ni etorri nintzanean laugarren mailan zegoen talde bat zegoen; UBIn. Orduan, lau urte lehenagotik zegoen. Agian aurretik besteren bat gehiago ere bazen.

Biologia ikasi zenuen eta irakaslea izan zara. Zergatik irakasle izan zara. Zergatik irakasle izan zara. Egoerak bultzatuta; nolabait aukera bidean gurutzatu zelako. Lagun batek esan zidan helduen irakaslea izateko aukera zegoela, eta aurkeztu nintzen. Elizondora joateko aukera berdina sortu zen. Altsasuko festetan lagun batek esan zidan egunkarian iragarki bat agertu zela matematikako bi irakasle behar zituztela Beran eta Elizondon. Aurkeztu ginen bi: Juanjo Olasagarre eta Yolanda Osagarre anai-arrebak ere uste dut aurkeztu zirela; kuadrilla bat aurkeztu ginen. Txiripa ez dut esango izan nuenik, baina bidean agertu zen aukera hori. Gero mundu horretan sartzen zara, oposizioak prestatu behar dituzu... Horrela izan da. Ez dut uste bokazioa nuenik. Baina gustura egon naiz, dudarik gabe.

Irakasle asko pasatu dira. Zurekin hasieratik dagoen norbait ba al dago?



Irakasleen bazkaria 2003. urtean; Casteig zutik ezkerretan bigarrena. UTZITAKOA

Arantxa Izagirre. Orain jubilatuko da bera ere. Ni etorri nintzanean bera dagoeneko hemen zegoen. Oposizioak atera zituen eta praktikak hemendik kanpo egin zituen, baina gero itzuli zen. Ez dakit zenbat irakasle pasatu diren. Ez naiz gauza kuantifikatzeko. Milaka, ziur. **Zuzendaria ere izan zara.** 1991ean etorri nintzen, eta esan zidaten Eskola Kontseilurako pertsona bat behar zutela eta hobe Sakanakoa bazen. Altsasuarra nintzenez, barrura sartu nintzen. Hurrengo urtean, nire institutuko bigarren urtean, zuzendaritza taldean sartu nintzen, ikasketa buru. Zuzendaritzan hamabost urte eman nituen hainbat postutan, eta gero zuzendari izan nintzen. Ondoren,

"INSTITUTURA 1991. URTEAN ETORRI NINTZEN, AURTEN 30 URTE; HUTSIK EGIN GABE"

"EUSKARAZ EZ ZEGOEN EZER, ETA URTE HARTAN LAN PILA BAT EGIN BEHAR IZAN NUEN"

ikusitua nuen urte asko neramatzala eta klaustorako hobe zela aldaketa egotea, eta zuzendaritza utzi nuen. Sei edo zazpi urte ondoren berriz pertsona bat behar zen, eta beste zortzi urtez aritu naiz. Guztira, 23 urte eman ditut zuzendaritza taldean, eta hamazazpi zuzendari.

Institutuko arima edo bihotza zarelaren esan daiteke?

Erantzule nagusia, behintzat, bai. Erantzukizuna nik neukan. **Zuzendari izan nahi zenuen?**

Ez zen nire helburua. Gainera, lehenengo urtean praktikak hemen bukatu berri izan zen. Orain pentsatzen dut, eta a zer nolako fundamentua nola sartu nintzen ikasketa buru. Baina garai horretan klaustroa askoz txikiagoa zen, eta D ereduko norbait behar zen, altsasuarra... Bada, aurrera. Gainera, normalean zuzendaritzarako jende gutxi egon ohi da. Barruan sartuta nengoenez, esperientzia nuen.

Irakaslea izatearekin uztartu duzu. Niretako hori funtsezkoa zen. Bazegoen aukera klaseak ez emateko, baina klaustro batetik tira egin behar baduzu, ezinbestekoa da. Ikasleekiko kontaktu hori ezinbestekoa da gero nahi duzuna transmititzeko. Zuzendariok ez dugu agintzen; klaustroa konbentzitzen saiatu behar dugu, klaustrotik tira egiten.

Horretarako geletan zer gertatzen den ezagutzea ezinbestekoa da: zer baliabide daudden, zer falta den, nondik joan... Niretako osagarria da. Ezin dut ulertu klaserik gabeko zuzendari bat.

Nola aldatu da institutuaren mundua hiru hamarkada hauetan?

Gizartea aldatu den bezala. Duela 30 urteko gizartean pentsatzen badugu, eta gaur egungoa ikusten badugu, ikusiko dugu ez dutela zerikusirik. Globalizazioaren kontu horrekin guztiarekin, digitalizazioarekin eta abarrekin. D ereduaren momentu horretan gutxiengoaren zen, eta orain beste muturrera pasa da eta A ereduaren gutxiengoaren da. Eta ikasleak? Ikasleak gizartearen isla dira. Aldatu dira, jakina. **Eta hezkuntza sistema aldatu da?** Hamaika lege izan dira. Ez naiz gauza esateko zenbat lege bizi

"EZ DA ZERBAIT BOKAZIONALA IZAN, NOLABAIT AUKERA BIDEAN GURUTZATU ZEN"

"ZUZENDARIA IZATEKO EZINBESTEKOA DA IKASLEEKIKO ETA KLASEEKIKO KONTAKTUA IZATEA"

izan ditugun, zenbat promozionatzeko irizpide desberdin, zenbat irakasgai antolaketa... Sisteman aldaketa nagusia egon zen ni etorri nintzanean, gazteak lau urte egoten ziren institutuan. 14-15 urterekin etortzen ziren. DBH indarrean sartu zenean, bi urte lehenago etortzen hasi ziren. Heldutasunean pila bat nabaritzen zen. Gogoratzen naiz lehenengo urteetan ez genekien nola tratatu. Maisu-maistrak etorri ziren, beraiek erreferentzia hori bazutelako: nola tratatu, mezuak nola eman eta abar. Aldaketaren hasierako urte horietan gogoratzen naiz koloretako

boligrafoen harira ez dakit zer azalpen ematen ari nintzela, txapa botatzen, eta mezua sinplea zen: bakarrik boligrafo urdina erabil zezaketela. Orduan nahaste handia sortzen zen: "baina orduan berdea ez? Eta gorria? Arkatza erabil dezakegu?". Adin horretara egokitze prozesu bat egon zen, mezuak motzago helarazten ikasteko... Niretako hori aldaketarik nagusia izan zen. Gero, taldeak oso anitzak dira. Lehen homogeneoagoak ziren. Bere gauza onekin eta txarrekin.

Zuzendari gisa, zer proiektu sustatu dituzu?

Nik egia esan ezer gutxi bultzatu dut. Nik, pertsonalki, ez. Talde bat behar da. Zuzendaritza talde on batekin egiten dira gauzak. Baita klaustroarekin sortzen diren taldeekin elkarlanean ere. Horiek laguntzen dute eta bultzatzen dute pila bat. Ezin da klaustro baten aurka ezer egin. Zuzendaritzako lehenengo urteetan, batez ere, gatazken konponbide baketsuarekin hasi ginen ikasleekin, gurasoekin eta abarrekin. Horrekin batera gelako araudiak eta gelako giroa nola kudeatu ere landu genuen. Nafarroan aitzindari ez dakit izan ginen, baina nahiko prestigioa lortu genuen. Bigarren epealdian hasita zegoen proiektuarekin jarraitu genuen: Ahoz-kotasuna. Proiektu horrekin bai aitzindaria izan dela institutua. Digitalizazio prozesu guztiarekin ere jarraitu dugu. Ikasleen for-

makuntza ikasle laguntzaile gisa proiektua egin dugu. Beti bizikidetzaren gaiarekin izan dugu kezka. Lantzen ari garen azken gaia, ez dakit noraino iritsiko den, kanpotik etorritakoa, baina guk bat egin duguna ere, kulturarteko bizikidetzak da. Horretarako diagnosi bat egin dugu, eta proiektua aurkeztu behar da. Lana dakar. Gero erai-kinean egindako berrikuntza guztiak: aretoa, gimnasioa, liburutegia...

Zer izan da irakasle eta zuzendari izatetik zailena?

Momentu gogorak bizi izan ditugu. Une jakinetan izan dira. Hildakoak izan dira; irakasleak, ikasleak, gurasoak... Irakasleen kontrako erasoren bat edo beste ere izan da. Gauza puntualak izan dira, baina momentu horietan oso gogorak izan ziren. Azken garai honetan pandemiaren eta horrek ekarri duen aldaketa guztia. Bereziki harro nago nola erantzun duen institutuak. Ostegunean, martxoaren 12an, jaso genuen mezua esanez ostiralean hobe zela institutura ez joatea. Bildu ginen eta erabaki genuen ezin genuela askoz gehiago egin. Asteartean bildu ginen, eta orduan plataforma bat jarri genuen martxan. Zerbaitetaz egon behar badut harro, lan taldeek egiten duen guztiaz da; baina bereziki institutuak nola erantzun zuen.

Eta momentu onak bizi izan dituzu?

Asko. Egia esan, egunerokotasuna zaila da. Eguna salbatzea zaila da. Baina askoz gehiago izan dira momentu onak. Ez dakit ospatzeko momentuak direla esan daitekeen, baina ikasleekin pasatako une on guztiak hor daude. Gauza bat da ikasleak taldea eta gela batean egotea, eta beste bat ateratzen garenean eta banakako harreman horiek normalean oso sanoak izaten dira. Institutura aurretik ezagutzen ez duten irakasleek oso ongi baloratzen dute ikasleen izaera. Bere gauza guztiak, jakina. Talde bat kudeatzea zama handia da, baina gero harreman horiek oso onak dira.

Zer behar da irakasle izateko? Eta zuzendari izateko?

Nik ez daukat ezaugarri berezirik. Ni langile bat naiz. Lan egin behar izan dut. Aparteko dohainik ez daukat. Baina sartu naitzen gauza guztietan horretarako lan egin dut, eta gauzak ahalik eta hobekien egiten saiatu naiz



Casteigen azken eguna izan zen astelehenean; ikasleek agurra egin zioten. IES_ALTSASU_BHI

beti. Bakoitza den bezalakoa da, eta izaerak asko markatzen du. Ikasleekin gelako giro lasaitu bat izaten saiatu naiz. Hor ere mugak daude. Baina ikasteko giroa erlaxatua izan behar du. Erlaxatua, bere tentsio puntuekin eta lanarekin. Ez mehatxupeko giro bat. Interesa izatea ere garrantzitsua da. Formakuntza jasotzen ere jarraitu dut, zer behar dauden eta nola lagundu jakiteko, besteak beste. Zuzendari izateko, lehenengo etapako akatsik handiena izan zen dena kontrolatu nahi izatea. Ez da posible. Bakoitzari bere erantzukizuna eman behar zaio; delegatzen ere jakin behar da.

Zer eman dizu irakasle izateak?

Esan dezaket bizitza profesional guztia hemen eman dudala. Institutuari nire bizitza profesional osoa eman diot. Hamai-k harreman on jaso ditut, eta gaur egun ateratzen naizenean ikasle ohiak ikusten ditut leku guztietan; eta agurtzen ditut. Baten baten izena ez dut gogoratzen, baina zein taldetan egon zen kokatzen dut, gutxi gorabehera. Irakasleekin ere harreman oso onak eman dizkit. Lagunak ere egin ditut. Ni pozik nago. Gustura egon naiz.

"INSTITUTUAREN BIZITZA GIZARTEAREKIN BATERA ALDATU DA"



Irakaslearen azken egunean institutua agurtu zen. IES_ALTSASU_BHI

Ez dut berebiziko presioa izan jubilatzeke. Nahi dudalako egin dut; momentua iritsi dela badakit, eta bukatu da.

Eta orain zer?

Ez dakit. Baina gauza batzuk egingo ditudala bai badakidala. Amarengandik gertuago egon beharko dut. Ongi dago, baina berarekin egotea merezi du. Familiarekin ere bidairen bat egiteko nahia hor dago. Egoera honekin ez dakit noiz izango den, baina garbi egingo dugula. Badut lanen bat edo beste bukatzeko nire material guztia biltzen ari naizela, nahiko aurreratuta dago, baina findu behar dut. Orain abenduan sartu gara, zubia, eguberriak... Urtarrilean ikusiko dugu zer egin.

Institutuaren falta sumatuko duzu?

Egunero pasa dut honekin bueltaka. Ez dakit buruan neuronak geldituko zaizkidan edo ez. Harremana mantendu nahiko nuke. Esan diet laguntza behar badute badakitela deitzeko aukera dutela. Zuzendaritza talde oso indartsua geldituko da. Oso gai da. Orduan, nire laguntza ez dut uste beharko dutenik. Gauza puntualen bat behar badute, badakite nirekin kontaktatu dezaketela. Baita matematikaren arloan ere. Laguntzeko prest nago.

"EGUNEROKOTASUNA ZAILA DA, BAINA ASKOZ GEHIAGO IZAN DIRA MOMENTU ONAK"

Institutuaren etapa berri bat hasiko da.

Zuzendaritzan nirekin egondakoak gelditzen dira. Iñaki Mundiñanok hartu du gidaritza, eta taldean nirekin egondakoak gelditzen dira. Jon ere sartu da. Oso ongi dago, poz-pezik joango naiz.

Zure falta nabarrituko da?

Ez dut uste. Gainera, hau berehala ahazten da. Heldu den urtean agian norbaitek esango du "halakoak esaten zuen...". Hemen dena da horrela. Honek guztiak aurrera egiten du, eta iragana atzean gelditzen da.

Irakasle berriendako aholkuak?

Bakoitzak bere bidea jorratu behar du, eta ikusi ondoan zer dagoen. Gela batean sartzen zara, ikasleei begira, eta zure gauza guztiak baldintzatzen dute: zure janzkerak, orrazkerak, izaerak, agurtzeko moduak... Bakoitzak ikusi behar du nola kudeatu. Esperientziak esaten dit beste gauzen artean talde batean funtzionatzen duenak ez duela zertan ondoko taldean funtzionatu behar. Orduan, ikusi behar da eta etengabe hausnartu behar da. Ni saiatu naiz ikasleei laguntza ematen. Laguntzea ongi ulertuta; ez oparitzen. Bide batetik edo bestetik aurrera egiteko aukerak ematen. Nik oraindik ere esperientzia guztiarekin gela batetik ateratzen nintzen eta esaten nuen: "Baina zer ordu eman didaten!". Baina hurrengo klasea primerakoa izan zitekeen.



ASTEKOA

AITZIBER GRADOS MUÑOA

365

Bihar, abenduaren 3a, euskararen eguna da. Modu anitzetan haren beharra, erabilera, garrantzia eta berezitasuna aldarrikatzeko eguna. Era askotan esango dugu euskara dela euskaldun egiten gaituena. Bi bider errepikatuko dugu euskaraz bizi nahi dugula. Baina topiko horiekin ahoa puzteaz gain, nola besarkatu euskara eguneror? Beno, ba euskara maitatzeko bide asko daude: nagusiak benetan erabiltzea zein espazio guztietan haren beharra aldarrikatzea. Baina proklamek ez dute deus balio gure euskaraz egiteko gaitasuna "kostatzen zaien" gaitasunen gainetik jartzen dugunean. Guztiok euskara maila zein ohitura desberdinak ditugu, eta guztiak dira polit bezain balioarriak. Guztiak errespetagarriak. Herri euskalduna nahi

JOLASTU DEZAGUN GUREA DEN HIZKUNTZAREKIN, AKATSEKIN ETA GABE

duen euskara maila edozein dela ere, jolastu dezagun gurea den hizkuntzarekin, akatsekkin eta gabe. Hori da gure altxorra zaintzeko bidea. Kontsumitu, hazi, hezi. Euskaragatik eta euskaraz. Niri, euskararen egunari begira, azken topiko honekin ahoa puztu zait, bai. Baina niretzat eta ingurukoentzat euskarak beste 364 egun ere baditu.

dugu, baina ondokoa euskara kaskarrean aritzen bada era kritikagarrian seinalatzen dugu, eta askotan barre egiten dugu gainera. Horrek segurtasun falta dakar. Lotsaren zama daramatenen iraungitzea. Horrek asko amorratzen nau. Bakoitzak

HARA ZER DIEN

Migrazioak eta osasun mentala II (jarraipena)

SAKANAKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

Nerabeak dira egokitzapenerako zailtasun gehien topatzen dituztenak, haien gizarteratze prozesua bortizki eteten delako. Jatorrian bere bizi proiektuaren haustura, migrazio proiektu berezkorik ez izatea, harrera gizartearen jarrera ezkor posibleak, eta bertan garatzeko dituen aukera eskasek (hezkuntzan, kulturalki, laboralki eta sozialki), nerabeen egokitzapen prozesua oztopa dezakete.

Migrazioen hasieran gazteak nahasketa egoera bizi dute araudia eta kontrol sozialari dagokionez.

Askotan portaera ambiguoak eta zailak azaltzen dituzte: batetik jatorriko gizartearen mugetatik aske sentitzen direlako, eta, bestetik, harrera gizartearen arauak propioak bezala ez dituztelako bizitzen

eta sentitzen, eta horregatik ez dute araudi horiek bete beharreko premiarik sentitzen.

Honek ez du esan nahi bere hezkuntza zaharraren haustura ekarriko duenik. Honek esan nahi duena zera da: bere izatearen funtsean bi indar daudela borrokan: batetik, berezko izateari eusteko indarra, eta, bestetik, bere identitatearen elementu berrien integrazioa.

Barne gatazka hauek egonkortasun ezean ager daitezke: bi taldeekiko leialtasunagatik, portaeren ambivalentziagatik, bi korronte jarraitu ezin izanak sortzen duen desesperazioagatik –batez ere korronte hauek bi norabideetakoak direnean: sintesi bat egiteko ezintasuna–; eta gero eta gehiagora doan emotibotasuna eta hipersentiberatasuna.

Nerabeen integrazio eta egokitzapena hainbat eragileen menpe dago:

- Gurasoen integrazio maila, eta dolauren lanketa maila.

- Zenbaitetan gurasoek nerabeen esku uzten dute migrazioaren dolauren lanketa, eta horrek harrera gizartearen jarrera baztertuailea (ghettoetan egotera behartzen dutena, maila sozio-ekonomiko baxuenetan, gizartearen bazterrean...).

- Gizartearen jarrera homogeneousatzailea, zeinak ez dieten uzten bakarrak izaten, anonimotasunera eta ikusezintasunera bultzatuz.

Normala eragin psikologikoa izatea, ezta? Agian harrera gizartearen jarrera zertxobait aldatuz, eragin hori arin liteke, elkarbizitza osasuntsu bati begira. Garaiz gaud.

GUTUNAK: Karaktereak, gehie-
nez: 1.900 (hutsuneak barne).
GUAIXEK eskubidea du gutuna
laburtzeko. Gutunak ezin
izango dira kapituluka bidali.
Gutunak asteazkena 10:00ak
baino lehen bidali beharko dira
erredakziora. Gutunarekin bate-
ra bidali beharrekoak: egilearen
izena eta abizena, NA zenbakia,
herria eta harremanetarako
telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak: Foru
plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu /
gutunak@guaixe.eus

Datorren astean ez da
Guaixe astekaririk egongo

Abenduaren 13an
izanen gara
bulegoan bueltan



guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Foru bultzada zazpi proiekturi

Gobernuak honakoak lagunduko ditu: guardetxea Aralarren, argindarra sortzeko turbina Uhartean, zatikatze gelarako tresneria Etxarrin, eskolaren zaharberritzea Bakaikun, estalpea jartzea Altsasun eta Koxkobiloko harrobian parkea egitea Olatzagutian

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Nafarroako Parlamentuan abenduaren 23an eginen den bilkuran onartuko da 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorre buruzko Foru Legea. Foru erkidegoak heldu den urtean 4.767.034.210 euroko aurrekontua izanen du, Nafarroako Gobernuari barrutik eta kanpotik eusten diotenen babesarekin. Aurretik, abenduaren 13tik 17ra arte hari alderdi eta koalizioek aurkeztutako zuzenketa partzialak Ekonomia eta Ogasun Batzordean eztabaidatuko dituzte parlamentariak. Epea despedituta talde eta elkarte parlamentarioek guztira 683 zuzenketa partzial aurkeztu dituzte.

Emendakinen bidez alderdi eta koalizioek hamabost milioi euro zertara bideratzea erabaki dute. Haien bidez gobernuaren zenbait diru sail moldatuko dituzte, eta, aldi berean, hainbat gizarte eta kultur erakunderen eta udalen eskaerei erantzunen diete. Eta horien artean Sakanako sei egitasmo eta sakandar baten proiektua daude.

Sakana

EH Bilduk Aralarren Guardetxea egiteko 150.000 euro bideratzea eskatu du. Koalizioak argudiatu duenez, "haien lanak eskatzen dituen kudeaketak egiteko, beharrezkoa da basozainei espazio duin bat ematea. Proiektua 2019an lizitatu zen eta ez zen gauzatu. Beraz, Nafarroako Gobernuak bere garaian hartu zuen konpromisoa gauzatzeko unea da".



Etxarri Aranatz

EH Bilduk Etxarri Aranazko Udalarik 75.000 euroko transferentzia egitea eskatu du, udalak hiltegiaren ondoan eraikitako eraldaketa gunea tresneriaz jantzi dezan. Uda akaberarako lanak despedituta zeuden. Han abeltzainek haragia zatikatu edota manipulatzeko aukera izanen lukete eta osasun zigilua jasota zuzenean salgai jartzeko aukera. EH Bilduren eskaeraren bidez, ekipamendu horretarako tresneria erosiko luke udalak.

Koalizioak azaldu duenez, "Etxarri Aranazko udal hiltegia baliabide baliotsua eta beharrezkoa da udalerriko eta Sakanako abeltzaintza eta haragi sektorea dinamizatzeko. Azken urteotan, herri eta ibarretako hiltegi txikiak desagertuz joan dira, eta horrek, beste faktore batzuekin batera, eragin negatiboa du inguruko elikadura eta abeltzaintza ehunean". EH Bildu gaineratu duenez, "hiltegiak eta eraldaketarako beste azpiegitura batzuk, eta horien existentzia edo gabezia landa eremuetan, faktore mugatzaileak dira, hau da, elikatze kate dinamiko, iraunkor eta erresiliente baten botila lepoa dira. Etxarri Aranatzen, zorionez, Nafarroan geratzen zen udal hiltegi bakaretako bat mantendu da. Horregatik, Etxarri Aranazko Udalak oinarritzko zerbitzu horren jarraipena eta modernizazioa bermatzeko borondate irmoa du".



La Faktoria

Geroa Bai, EH Bildu eta Ahal Duguk elkarrekin La Faktoria Choreographic Centerren funtzionamendu gastuetarako 60.000 euro bideratzea eskatu dute. Laida Aldaz Arrietak beste bi dantzariarekin batera sortutako egitasmoa da. Argudiatu dutenez, "kulturan programa berritzaile bat bultzatzea, dantzari ekarpen bereizgarria egiten diona".

Bakaiku

EH Bilduk Bakaikuko Udalarik 125.000 euroko transferentzia egitea proposatu du, hala udalak eskolen eraikina egokitzeko. Koalizioak nabarmendu duenez, "bakaikuarrek herriko estrategia planean lehentasun gisa aukeratu zuten ikastetxea. Eraikina oso hondatuta dago eta goitik behera konpondu behar da, isolamendua eta abar". EH Bilduk azaldu duenez, Bakaikuko Udalaren asmoa da eraikinaren beheko aldean haur eta gazteendako txokoa eta erabilera anitzeko aretoa egitea. Gaineratu dutenez, "goiko aldean bi edo hiru etxebizitza eraikiko dira, Udala Nasuvinsarekin harremanetan dago". Etxebizitzak egiteko lanak ez daude aurrekontuan jasota.



Uharte Arakil

EH Bilduk Uharte Arakilgo Udalarik 85.000 euroko transferentzia egitea eskatu du. Udalak Ganbeletako iturburutik heldu den goi hornidurako hodian argindarra sortzeko turbina jarriko du. Hura etxola baten barruan egonen da Itsasgainen, ur biltegiaren ondoan, baina goiko partean. Koalizioak azaldu dutenez, "helburua da igerilekuan sare elektrikora konektatzeko instalazio bat jartzea, autokontsumorako instalazio bat izatea, soberakinekin, eta udalaren jabetzako hainbat kontsumoren artean partekatzea". Hau da, "kontratu elektriko publikoetan herrian sortutako energia elektrikoa aprobetxatuko litzateke". Egitasmoa egiteko ingeniari-tza proiektu bat idatzi beharko da aurretik.



Altsasu

Geroa Baik Altsasuko Udalarik 300.000 euroko transferentzia egitea proposatu du, diru horrekin estalpe bat egiteko. Iortia kultur guneko zabalgunearen parean eraikiko da estalpea, 720 metro karratuko azalera izanen duena (40 metro luze eta 18 zabal). Geroa Baiko kideek argudiatu dutenez, "Altsasuko hirigunearen erdigunea da teknikoki. Geroz, estalitako espazio hori herriko erdigune eta merkataritza gunea gisa ezagutzen den gunean egokituko litzateke". Koalizioak azaldu dutenez, "estalpea eraikitze eskaera handia da, eta beharrezkoa Altsasuko gizarte, kultura eta sozio-ekonomia (merkataritza eta ostalaritza) dinamizatzeko". Gaineratu dutenez, estalpea bat egiten du "gaur egun kultur jardueraren garrantzitsua duen kultur etxearekin, asteazkeneroko azokarekin eta gainerako jarduerekin". Eguraldi txarrak kaleak gauzak egitea ez duela laguntzen eta Altsasuko hainbat kultura eta ekonomia (dendari eta ostalariek) kolektibok udalari "beharrezko inbertsio hori egitea" eskatu diotela ere nabarmendu du.



Olatzagutia



PSNk eta EH Bilduk elkarrekin aurkeztutako zuzenketa partzialak Olatzagutiko Udalarendako 80.000 euroko transferentzia bat egitea eskatzen du. Koxkobilo harrobia zaharberitzeko litzateke. Proposatzaileek azaldu dute Altzania magaleko harrobia 20 urtez baino gehiago ustiatu zutela joan den mendeko lehen erdialdean. Harrobiko paretak denborarekin berez zaharberitu dira eta "une honetan harrobiko plaza zaharberitzeko prozesuan gaude. Zaharberitze lan hori gobernuko hainbat departamentuk bulkatu dute, eta zaharberitze lan horren zati bat orain arte errentan hartutako enpresak ordaindu behar du".

Aranzadi zientzia elkarteak egindako lanaren ondorioz jakin da makina bat animalia izan zirela aspaldian Koxkobilon, esaterako: haitzuloetako hartzak, hartz tibetarrak, azkonarrak, makakoak... Aurrekontuen zuzenketa aurkeztu dutenek azaldu dutenez, "helburua da harrobi hori parke bihurtzea, eta, bertan, milaka urtez bertatik igaro diren animalia espezieez gozatzea". Horretarako, informazio panelak, ikusiz identifikatu ahal izateko 3Dko hainbat egitura, askaldegia, eremuko biodibertsitatea ziurtatzeko zuhaitz autoktonoak landatzea eta, ahal izanez gero, harrobiaren erdialdean iturri bat jartzea da helburua.

Irurtzunen erosketak egiteko erraztasunak

Ilbeltzaren 5era arte irurtzundarren eskura bost eurotan erosi daitezkeen hamar euroko bonoak

IRURTZUN

Herriko dendekin bat! Izen hori eman dio Irurtzungo Udalak udazken akabera eta negu hasieran garatuko duen kanpainari. Haren bidez irurtzundarrak herriko dendetan erostera animatu nahi dituzte. Horrela, udalak Irurtzungo merkataritza sustatu, haren garrantzia azpimarratu eta dendek herriari ematen dioten bizitza eta dinamismoa nabarmendu nahi du. Erosketak egiterako garaian kanpainak irurtzundarrei erraztasunak emanen dizkie, izan ere, hamar euroko balioa duten bonoak prezio erdian eskuratu ditzakete.

Irurtzungo Udalak guztira 2.000 bonu egin ditu. 18 urtetik gorako irurtzundarrek eskuratu ditzakete udaletxean, astegunetan 09:00etatik 14:00etara. Ilbeltzaren 5era arte izanen da aukera, edo bonuak agortu arte. Bonoak eskuratu nahi dituztenek joan behar dute udaletxera eta bere Nortasun Agiria eraman. Gehenez ere bost bono eskuratu ditzake pertsona bakoitzak. Haiek herriko 24 establezimendutan erabili daitezke. Guztiak kartel batekin identifikatuta daude.

Bonoa eskuratzeak hainbat baldintza onartzea dakar berekin. Batetik, erosketaren zenbatekoa bonoaren balioa baino txikiagoa bada, aldea ez da eskudirutan bueltatuko. Bestetik, bonoak ezin dira eskudirutan trukatu, eta ez da inola ere balio horren zenbatekoa itzuliko. Geroz, erositako produktua bueltatzen bada, establezimendua erosketaren balio osoarekin balea egingen dio erosleari. Gainera, nahi adina bono pila daitezke erosketa batean. Azkenik, bonorik edo ordaindutako dirurik ez da bueltatuko haiek galdu edo bestelako egoerak sortuz gero.

21 aldiz COVID-19 kasu gehiago azaroan

Lastailean 12 kasu izatetik azaroan 253 izatera pasa da ibarra. Maiatzeko egoeraren parekoa du gaur egun Sakanak. Aurten, azaro akaberara arte 2.033 sakandarrek izan dute gaitza, populazioaren %15,81

SAKANA

Osasun etxeetako langileei, atzera ere, lana pilatu zaie azaroan. Lastailean dozena bat COVID-19 kasu besterik ez ziren zenbatu Sakanan. Azaroan, berriz, kopuru hori 21 aldiz handiagoa da: 253. Hilabete hasieran kasuak banaka agertu ziren han eta hemen. Hilabetearen bigarren erdialdearen hasieran kopuruak handitzen hasi ziren herri batzuetan, eta azaroko azken hamar egunetan izan da gaitzaren transmisio handiena.

Lau udalerrri handitan pilatu dira COVID-19 kasu gehien: Lakuntzan 56, Altsasun 55, Irurtzunen 42 eta Etxarri Aranatz 38. Kasu gutxiago zenbatu dira beste seitan: Arakilen 12, Urdiainen 10, Uhartarakilen 8, Olatzagutian 5, eta Ergoienan eta Bakaikun launa. Irañetan eta Iturmendin gaixo bana izan dute. Eta, azkenik, kasu bat bera ere ez da egon ez Arruazun ezta Ziordian ere.



Txertoa hartzen. ARTXIBOA

COVID-19 gaitza guztira 3.203 sakandarrek pasa dute, 1.170ek joan den urtean eta 2.033 aurten. Ibarreko populazioaren %15,81 gaixotu da aipatu koronabirusarekin. Ehuneko horretatik gora zazpi udalerrri daude: Ur-

dian %25,11, Etxarri Aranatz %20,95, Lakuntza %20,63, Arbizu %19,3, Iturmendi %17,03, Irurtzun %16,29 eta Irañeta 15,98. Eta Sakanako batz bestekoaren azpitik zortzi udalerrri daude: Uhartarakil %15,34, Ergoiena %14,05, Altsasu %13,56, Bakaiku %12,22, Olatzagutia %12,21, Arakil %11,95, Ziordia %10,86 eta Arruazu %9,43.

Bitartean, 70 urtetik gorakoak, arrisku oso handiko pertsonak eta Janssenen txertoa jaso zutenak txertatzen segitzen du. Orain 60 eta 69 urtean dituztenak txertoaren hirugarren dosia jasotzera deitzen hasi da. Leitzako eta Irurtzungo osasun eskualdeetakoek Irurtzungo kiroldegian dute hitzordua abenduaren 15ean. Etxarri Aranatz eta Altsasukoen txanda abenduaren 21ean izanen da, Altsasuko Burunda frontoian. Abenduan ere osasun arloko langileak eta 5 eta 11 urte arteko haurrak deituko dituzte txertatzera.

Arrosa sareko podcast-ak

Ostiraletan 18:00etan eta 22:00etan
Larunbata eta igandetan 11:00etan eta 22:00etan

beleixe 107.3 FM

Play



Konpost plantan hainbat kartel jarri dituzte, bisitendako gida izanen dira. UTZITAKOIA

Hondakinen Funtsetik 9 proiekturi bultzada

Sakanako Mankomunitateak 174.860,7 euro (BEZ kanpo) balioa duten proiektuak egiteko Nafarroako Hondakin Funtsetik 141.759,18 euro jasoko ditu. Zerbitzua hobetzeko eta sakandarrek hondakinen kudeaketa egokia egitea errazteko da dirua

SAKANA

Nafarroan zabortegetara bide-ratzen den hondakin tona bakoitzeko bi ordainketa egin behar dira: onarpen tasa eta zerga bat. Hala dago jasoa Hondakinei buruzko Foru Legean. Zerga horrekin eta hondakinak gaizki kudeatzegatik jarritako isunekin bildutako dirua Nafarroako Hondakinen Funtsera doa. Jasotzen den dirua administrazioen artean dirulaguntza moduan banatzen da, beti ere, hondakinak prebenitzeko, berrerabiltzeko edota birziklatzeko proiektuak garatzeko. Sakanako Mankomunitateak aurten bederatzita proiektutarako laguntza jaso du.

Zero Zabor Komertzioak

Hondakinak murrizteko eta komertzioetan hondakinak ongi bereizteko programa da. Gainera, denda txikiei balore positiboa eskaintzen die haien jarrera arduratsua agerian jarritz. Horretarako, denden sarreran Zero Zabor Komertzioa dela adieraz-

ten duen pegatina bat jarriko da. Bestalde, denda txikien bidez sakandarrei hainbat material banatuko zaizkie: harategi eta arrandegietan erabiltzeko tupe-rrak; jatetxeetatik jatekoak eramateko konpostatu daitezkeen ontziak; jutezko poltsak janari dendetan erabiltzeko eta kotoizko poltsak beste dendetan erabiltzeko

Kamioi baten erosketa

Mank-ek biohondakinak jasotzeko kamioia erosi nahi zuen, baina dirulaguntzek ezarritako epeak ezinezkoa egin zuten. Irailean jakin zuen erosketarako dirua zuela, eta azaroaren 15a baino lehen egin behar zuen erosketa. Halako kamioiak enpresek stockean ez dituztenez, kamioi berria erosteko ideia baztertu eta bigarren eskukoa erostea erabaki zuen Mank-ek. Hasieran 135.000 euro aurreikusten zituen erosketarako, 94.500 euroko laguntza izan behar zuen. Baina aldaketaren ondo-

ren, bigarren eskuko kamioia erosteko 60.000 euro bideratuko ditu, dirulaguntza: 42.000 euro.

Konponketa Txokoa

Arbizuko Utzubar EKOgunean konponketak egiteko etxola bat jarri da, hainbat tresnekin. Sakanako Konponketa Txokoak hamar konponketa tailer hartuko ditu. Haren bidez, Mank-en helburua berrerabilpena sustatzea da. Horretarako, ikastetxeekin, jubilatuekin eta hainbat eragilerekin harremanetan jarriko da, konponketa tailerrak eskaintzeko.

Trazabilitate sistema

Bilketa kamioietan GPS sistemak ezarriko dituzte. Proiektu horren bidez Mank-ek hondakinen bilketa ibilbideak optimizatzen eta, beraz, bilketa zerbitzua hobetzeko aukera izanen du.

Komunikazio kanpaina

Aztikerrek inkestaren emaitzak agerian utzi du herritarrek hon-

Funtsak lagundutako proiektuak

Proiektua	Aurreikusitako kostua (BEZ kanpo)	Jasotakoa
Zero Zabor Komertzioak	26.197,60	26.197,60
Sakanako Konponketa Txokoa	10.156,76	7.800,00
Kamioi erosketa	60.000,00	42.000,00
Trazabilitate sistema	2.576,75	1.800,00
Komunikazio kanpaina	29.527,68	29.527,68
Biohondakin bilketan hobekuntzak	18.402,99	12.800,00
Organikopa	6.059,90	6.059,90
Arropa edukiontzia	20.520,00	14.374,00
Konpost plantan hobekuntzak	1.419,02	1.200,00
Guztira	174.860,70	141.759,18

dakinek zer bide jarraitzen duten jakin nahi dutela. Horregatik, Mank-ek komunikazio kanpaina egingen du. Haren barruan, besteak beste, sakandarren informazio eskaerei erantzuten dien gida bat argitaratu eta ibarreko etxebizitza guztietan banatuko da.

Biohondakin bilketan hobekuntzak

Biohondakin bilketarako beharrezkoak diren hainbat material erosi dira: 120 litroko eta 240 litroko edukiontzi marroiak, haiendako giltzak eta etxean biohondakinak banatzeko kuboak. Bestalde, hainbat konponketa egin dira: etxoletan, edukiontziak heltzen dituzten zutoinetan eta posteetan.

Organikopa

Mank-ek Etxarri Aranatz eta Altsasuren arteko materia organikoaren bilketa lehia antolatu zuen. Etxarri Aranatz astelehen eta ostegunetan posteetatik bildutako gai organikoaren pisua aztertu zuten asero eta Altsasun, berriz, edukiontzi marroien bitartez jasotakoa. Maiatzaren 3tik gailaren 3ra arte egin zituzten neurketak. Neurketa etxarriarrek irabazi zuten, herritar bakoitzeko 34,29 kilo materia organiko berreskuratuz zuten bi hilabete horietan. Etxarri Aranatz Organikopako Sakanako eta Nafa-

ZABORTEGIRA BOTATZEAN PAGATZEN DEN ZERGATIK ETA ISUNETATIK DATOR FUNTSEKO DIRUA

roako garailea izan zen. Irailearen 16an Etxarri Aranatz sari banaketa egin zen. Birziklatutako plastikoarekin egindako hainbat hiri altzari eman zizkieten Etxarri Aranatzko Udalari sari moduan (mahaiaik eta bankuak, zakarrontziak, bizikletak aparkatzekoak eta kafe kapsulak biltzeko edukiontzia) eta Altsasuri Otadia auzo konpostgunean hobekuntzak eta informazio panela eta kafe kapsulak biltzeko edukiontzia eman zitzaion.


Arropa edukiontzia

2019an kalean zeuden arropa biltzeko edukiontziak erretiratu ziren, bilketa egiten zuen enpresak Nafarroako delegazioa itxi zuelako. Orditik Mank buru belarri aritu da zerbitzu hau berreskuratzeko aukerak aztertzen.

Azkenik, Emausko Trapuketariekin hitzartu du zerbitzu horren eskaintza. Kalean jartzeko edukiontziak erosi ditu. Lehen 27 bazeuden aurki 29 izanen dira. Edukiontziek diseinu berria izanen dute, arropa behin bilduta jarraitzen duten bidea zein den azaltzen duena.

Konpost plantan hobekuntzak

Aurten zabaldu den konpost plantako sarreran kudeatutako materia organiko kopurua eta banatutako konpostaren inguruko informazioa ematen duen kartel dinamikoa jarri da. Era berean, heziketa ekintzetan laguntzeko han ikusi daitezkeen frakzioen ikonografia landu eta kartelak egin dira, esaterako: inausketak, egituratzaila, konposta, materia organiko eta abar.



Lakuntzarrak auzolanean aritu dira Gazte Txokoa egokitzen. UTZITAKOA

Gazte txokoak abendu erdialdean zabalduko ditu ateak

11 eta 14 urte arteko gaztetxoei bideratuta dago. Larunbat eta igande arratsaldeetan zabalduko ditu ateak

LAKUNTZA

Uriz kalean, Sakanako Mankomunitatearen egoitzaren ondoan dago Lakuntzako Gazte Txokoa. Lakuntzako Udalak eskola laboralak izandakoaren zati bat, kaletik gertuen dagoena, horretarako egokitu du. Baina lan horietan udaleko langileez aparte, guraso talde bat eta egoitza erabiliko duten gaztetxoak ere aritu dira. Auzolanak irailaren 4an, lastailaren 2an eta azaroren 6an egin zituzten. Eta zabaldu aurretik beste bat eginen dute, guztia behar bezain garbi uzteko.

Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza alkateak azaldu duenez, "Gazte Txokoa aspaldiko premia zen. Neguan haurrak non sartu ezin jakin ibiltzen dira. Gazte Txokoa beraiendako espazio bat izanen da, ahalduntzeko, beti ere, hezitzaileen laguntzarekin". Azaldu duenez, guraso batzuek udalarekin elkartu eta hortik auzolanerako eta kontratazioak zehazteko taldeak sortu ziren. "11 eta 14 urte arteko gaztetxoendako tokia izanen da. Gaur egun adin horretako 60 bat daude Lakuntzan. Gazte Txokoan ize-na emateko epea zabaldu dugu. Udaletxean eman behar da ize-na eta ikasturte guztirako kuota sinboliko bat ordaindu behar da".

Alkateak jakinarazi duenez, dagoeneko hiru hezitzaile kontratatu dituzte. "Astebururo bi ariko dira lanean, eta hirugarrenak jai izanen du. Txandakatzan joanen dira beti batek

jai izateko". Argitu du Razkinek. Azaldu duenez, Gazte Txokoak 120 metro karratu ditu areto handi batean, sukaldetan eta komunetan banatuta. Udalak 3.500 euroko aurrekontua zuen lanak egiteko, baina auzolanak egin direnez aurrekontuak behera egin du. Eta gehiago jaitsi da Salmen Etxeak sukaldeta eta altzariak oparitu baititu.

Gizarte etxebizitza

Gazte Txokoarena ez da eraikinean egiten ari diren lan bakarra. Etxarri Aranatz aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak sustatuta, gizarte etxebizitza bat sortzeko lanak aurrera doaz. "Lanak aurtentz despiditu nahi ditugu, baina luzatzen ari dira", azaldu du Razkinek. "Etxe gabetze kasu batean, tratu txarren kasu batean, sute batek etxea txikitu duenean... Aparteko halako egoeretan erabiltzeko etxebizitza litzateke. Zein kasutan zeinek erabili behar duen, egoeraren balorazioa eta erabakia gizarte langileek eginen dute", argitu du alkateak.

Etxebizitzak 144 metro karratu izanen ditu. Eta hura egokitzeke 15.000 euro bideratuko ditu aipatu mankomunitateak. Lanak Lakuntzako Udala koordinatzen ari da, baina Etxarri Aranatzko Udalak ere lanen bat eginen du. Gizarte etxebizitzak eta Gazte Txokoak berogailu bera erabiliko dute, baina egoitza bakoitzaren erakunde arduradunak bere zatia pagatuko du.

Meistruban etxea erabat berritzeko proiektua

Dorraako Kontzejuak beheko solairuan gizarte gela egin nahi luke eta lehen eta bigarren solairuetan, berriz, herritarrei alokatzeko etxebizitzak. Azken horretarako Nasuvinsa enpresa publikoaren aholkularitza du

DORRAO

Herriari bizia emanen dioten proiektuak hartzeko meistruban etxea begiz jota du Dorraako Kontzejuak. Batzarreta kalean dagoen eraikinak hiru solairu ditu. Idokia Resano Igoa kontzejuko presidentek azaldu duenez, "beheko solairuan gizarte zentroa egin nahi dugu. Barra, denda, denetarik izanen du. Han edozer gauza egiteko aukera egonen litzateke: ikus-entzunezkoen emanaldiak, sukaldaritza ikastaroak... Taberna gisa funtziona lezakeen aztertzen ari gara".

Etxeak oinezkoendako pasabidea du eta, pasarako eskubidea errespetatuz, "babestuta egoteko" estalpea kristalez babesteko aukera aztertzen ari direla azaldu du Resanok. Hura eta 55 metro karratu dituen gizarte zentroa lotuta leudeke. Lanak egiteko laguntza beharko du kontzejuak eta, horregatik, Cederna Garalurren bidez dagoeneko dirulaguntza eskatu du. Eta laguntza jasoko ote duten zain daude kontzejuko kideak. Bitartean Ergoienako Udalean jarduera lizentzia eskatu dute.

Etxebizitzak

Etxeko lehen eta bigarren solairuak etxebizitzetara bideratu nahi ditu Dorraako Kontzejuak.



Dorraako Kontzejuak etxerako proiektua eginda du dagoeneko. ARTXIBOA

"Lau apartamentu egin nahi genituzke, bi gelako bi eta gela bakarreko beste bi" azaldu du Resanok. "Etxebizitza horiek alokatzen lehentasuna dorru-barrek izatea nahi dugu. Kontzejuak aukeratuko luke nor sartzen den haietan bizitzera, eta alokairuko dirua ere berarendako litzateke. Iruditzen zaigu pasarako etxebizitzak izanen direla, gazteak herrian bizitzeko beste etxe bat opatzen duten arte", esan du kontzeju buruak.

Etxebizitzak egiteko egitasmo horretan Dorraako Kontzejuak

Nafarroako Gobernuaren Nasuvinsa enpresa publikoaren laguntza eta aholkularitza izanen du. Esaterako, dirulaguntza deialdietan. Nasuvinsarekin hasitako elkarlan horregatik galdetu ziren kontzejuak dorru-barrei lastailan duten etxebizitza premiaren inguruan. Galdetegia hamabost herritarrek erantzun zuten, gehienak 35 urtez azpiko gazteak. Jasotako emaitzekin kontzejuak txostena osatu eta Nasuvinsako kideei aurkeztu zien egin zuten azken bileran.

BILTOKI
TABERNA • JATETKEA

Eguneko menua 11 €

Menu berezia 15 €

Telefono berria:
948 562 348 • Altsasu

PORTUKO
okidengia

Altsasu: 948 563 822 (denda)
948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

Errigorak Sakanan 403 zare banatu berri ditu

Errigorak bederatzigarren aldiz Nafar hegoaldeko uzta euskari puzka kanpaina egin du. Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko produktuz osatutako hiru zare eskaini ditu. Pandemiaren ondoren 15.500 zare banatu dituzte. Haien salmentaren laurdena eskualde bereko eskalgintzari bideratu dio Errigorak, guztira 235.000 euro bideratuko dira Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko AEK, Ikastolak, Sortzen eta Agerraldira. Ekimena martxan jarri zenetik 1.600.000 eurotik gorako ekarpena egin die Errigorak erakunde horiei.

Sakanan guztira 403 zare saldu dira (%2,6). Eskaera eta jasotze puntu jakinak zeudenez, sakandarrek haietara jo dute eskaera egitera. Errigoratik emandako datuen arabera, zaren erdia baino gehiago, 235 Altsasun erosi dira. Gainontzeko eskaerak honako herrietan egin dira: Etxarri Aranatzan 67, Lakuntzan 28, Irurtzunen 20, Arbizun 19, Irañetan 18 eta Uhartan 16.

Antolatzaileek kanpaina posible egin duten ekoizleak, eskalgintzako eragileak, boluntarioak eta herritarrak zoriondu ditu. Bestetik, Nafarroako erakunde dei egin diete: "erantzukizuna hartu eta behar beste baliabide jar dezaten hizkuntza politikari buelta emateko".



Makina bat jende elkartu zen larunbatean aterpetxearen itxieraren kontra egiteko.

Otadia aterpea ez ixteko eskaera kalean berretsia

Protesta kontzentrazioa egin zen larunbatean. Langileen kaleratze oharra jaso dute dagoeneko

ALTSASU

LABek jakinarazi duenez, aterpeko langileen ordezkariek Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaile Carlos Amatriain Bustorekin bildu ziren. Sindikatuko kideen arabera, "Amatriain ez zen gauza izan zentroa ixteko erabakia bermatzeko moduko inolako daturik emateko". Zuzendariak berretsi zuen ez dela behin betiko itxiera, "baina ez zuen argitu zer gertatuko den aterpetxearekin. LABek gaineratu duenez, zuzendariak "profil teknikoagoen alde egin beharra"

nabarmendu zuen, eta aterpetxeak okupazio baxua zuela argudiatu.

LABek argitu duenez, "bertan lan egiten duten sei dagoeneko jakinarazi zaie kalera joanen direla. Kontratua deuseztatuko zaie eta etxera joanen dira inolako kalte ordainik gabe". Altsasukoa Nafarroako Gobernuak zuzenean kudeatzen duen aterpetxe bakarra da. LABek jakinarazi du ASPACE fundazioarekin zerikusia duten pertsona batzuk zentroa bisitatzen egon direla. "Badirudi zerbitzu publiko baten beste pribatizazio bat datorrela".

Trenbidea egokitzeko azterlana ematea eskatu dute

Burgos-Gasteiz-Iruñea-Zaragoza trenbide azpiegiturak hobetzeko eta egokitzeko informazio azterlana idazteko 200.000 euroko partida dago jasoa Estatuko aurrekontu orokorretan. Nafarroa Trenaren alde plataformak egokitzat jo du diru poltsa hori: "gaur egungo trenbideen hobekuntza eta egokitzapena bermatzen duen azterlan bat egitera bideratua, era guztietako trenak erabil ditzaten". Gaineratu duenez, "pauso handia da pertsonen eta salgaien trenbideko garraioaren kudeaketan logika koherente baterantz aurrera egiteko".

Plataformatik azaldu dutenez, "diru partida hori bat dator Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioak 2021ean Teruel-Zaragoza eta Castejon-Logroño arteko trenbide azpiegiturak egokitzeko eta hobetzeko eskatutako azterlanekin. Horri esker, Ministerioak berak ziurtatzen duen bezala, prestazio handiko lineak irits daitezke hirietara epe laburrean, egikaritze epeak askoz ere txikiagoak dira eta inbertsio kostu txikiagoa dute orain arte egin nahi ziren proiektuek baino". Trenbidea egokitzearren onurak lirateke: "geltokiak eta geraldak berriz irekitzea, lurraldea egituratzea, eskualdeko garraioa hobetzea, salgaiak trenen bidali".

Erdoziak bi liburu aurkeztuko ditu hurrengo egunetan

Jose Luis Erdozia Mauleon ikerlari eta euskaltzain urgazle etxarriarrak bi liburu aurkeztuko ditu. Lehendabizikoa liburuen aurkezpenean Etxarri Aranazko kultur etxean egingen du. Abenduaren 14an, asteartean, 19:00etan, *Sakanako euskal hizkerak (XXI. mendeko ezkaratzean)* liburuen aurkezpenean. Bigarren aurkezpenean gaur egitekoa zen, baina atzeratu dute. *Arakilgo ekialdeko etxe-izenak historian barna* liburua Izurdiagako elkartearen aurkeztuko du. Aurkezpenean elebidunera joateko arakil-kultura@gmail.com edo info@arakil.net e-postetara idatzi edo 634 584 226 edo 948 500 101 telefonoetara hots egin behar da.

'Bideak dokumentala' Bilboko 14. Mendifilm jaialdian

Bilboko 14. Mendifilm jaialdia, mendiarekin lotura duten filmen jaialdia ostiralean hasi eta hilaren 11 despedituko da. Guztira 52 film eskainiko dira, hamaika hitzaldi eta sei erakusketa. Eskainiko diren filmen artean Xabi Unanua Goikoetxea irurtzundarrak zuzendutako *Bideak* dokumentala lanaren proiektzioa egingen da, Aritz Ganboa de Miguel artzain arruazuarra protagonista duena. Filma ostiralean eskainiko da, 19:00etan, Bilboko BBK aretoan, euskaraz. Unanua eta Ganboa bertan izango dira.

Dokumentalak 2019ko lastailaren 26 eta 27 artean Ganboak bere bi aitonen herriak, Arruazu eta Izaba, mendiz mendi lasterka batzeko egindako erronkaren berri ematen du (170 km eta 8.000 metroko desnibel positibo), gainera Albi bere gaztandegian egindako gazta zuela, artzaintzaren eta bere bi jatorrien lotura islatzeko. Filmean, ibilbidearen irudiekin batera, landa eremuko ondare zabalaren lekukotzak jasotzen dira. Dokumentalarekin batera, hartan oinarritutako ipuin musikatuak ere aurkeztuko dute. Iker Uribeberria eta Joana Ziganda dira liburuen egileak, eta helburua ekimena gaztetxoengana eta umeengana iristea da.

DUELA 25 URTE...



Kultur Astea Arbizun

Dagoeneko hiruzpalau urte ziren Arbizun Kultur Astea antolatzen zutela, 1996koa azaroren 27tik 30era izan zen. Hasteko Trokolo antzerki taldeak *Liburulariak* antzezlan eskaini zuen. Mikel Elizagak kontzertua eskaini zuen eta Arantzadi zientzia elkarreko kide batek botanikari buruzko hitzaldia eman zuen irudiz lagunduta. Bukatzeko, Alda Bide elkarreko bertso afaria hartu zuen. Joan zirenak Maialen Lujanbioren eta Unai Iturriagaren bertsoekin ijili-ajala ibili ziren.

Arbizuko bi pabilioiak arropaz hustu dituzte

Han zeuden arropa metak bi sakandarrek birziklatzeko pilatu zituzten. Orain lortu dute arazoa konpontzea

ARBIZU/ZIORDIA

Arbizuko bi pabilioitan Gipuzkoan gaika jasotako arropa legez kanpo botata zegoela salatu zuen Gurelurrek garila erdialdean. Bi sakandarrek ekarri zituzten Gipuzkoan hondakinen gaikako bilketaren bidez jasotako arropa horiek. Han Emausek merkatu-ratzen ez duen arropa da Arbizun agertu zena. Sakandarrek bigarren baheketa bat egin eta baliagarria dena Afrikan saltzeko bidaltzen dute. Errefusa dena Herbeherera, han trapuak, haria, plastikoa eta beste egiteko.

Pandemiagatik mugak itxi eta bidalketak egin ezinik ibili ondoren, Arbizukoak hustu dituzte, eta hala jakinarazi diote udalari. Biek eta arropa Gipuzkoatik ekartzen duen enpresak argi utzi nahi izan dute "arropa ez dela hondakindegira botatzeko, birziklatzeko baizik, arropari beste bizi bat emateko". Bestalde, 2019ko irailetik Ziordiko Aralurren dauden arropa metak kentzeko lanean ari direla jakinarazi dute gipuzkoarrek, horretan Iruñeko enpresa bat ari dela zehaztu dute.

Nafarroako Memoria Guneen Sarea online

Memoria duen Espazioen Sareak webgune berria toki horiek ezagutarazteko sortu dute

SAKANA

Nafarroako Memoriaren Institutuak sortu duen webgunean memoria guneen 17 fitxa eta Pirinioak, muga eta memoria ibilbidearekin sortu da, baina hurrengo hilabeteetan eduki berriekin osatuko da, Nafarroa osoa hartuz. Otsaportilloko lezea eta Iberoko Zurbao dermioa. Bietan sakandarrak erail zituzten eta biak memoria leku izendapena dute.

Institutuko zuzendari Josemi Gaston Aguasek azaldu duenez, "Memoria guneak Sareak gizar-

te osora ere iritsi nahi du. *www.espaciosdememoria.com* webguneaz aparte, liburuxka zabalgarriak egingen dira, turismo bulegoetan, landa ostatueta, udaletxeetan, kultura etxeetan eta elkarteetan banatzeko, eta sare sozial bidez partekatzeko ikus-entzunezkoak ere egingen dira". Gaineratu duenez, "webgunea gailu mugikorretatik erraz erabiltzeko diseinatu da, edukiak bidaletan eta txangoetan erabiltzeko, zorrotzasun historiografikoari eutsiz, baina publiko guztiarendako egokitua".



UTZITAKOIA

Herria argazkietan ikusgai

Irañetako udaletxeak herriko egutegirako proposatutako argazkien erakusketa hartu zuen igandean. Gaur egungo Irañetako argazkiak ziren ikusgai zeudenak. Gainera, irintarrek gogoko argazkien alde egiteko aukera izan zuten. Babes gehien duten dozena bat argazkirekin Irañetako Udalak herriko egutegia egingen du. Estreinako aldia izanen da.

KudeaGo app-a erabilgarri

Sakana KudeaGo mugikortasun plataforma dagoeneko dohainik deskargatu daiteke Google Play eta Apple Storetik. Telefono mugikorrerako aplikazio horrek bidaiek egiterakoan sakandarrek autoa partekatzeko aukera ematen du, eta plataformari ez zaio komisiorik ordaindu behar. Erabiltzaileek beraien neurriera egokitu dezaketen aplikazioa da.



ARTXIBOIA



Elurra toldo gainean pilatu eta euskarria den faroletako bat erori zen.

Elurraren kargarekin estalpeko toldoa behera

Lehen elurrak plazako estalpeko toldoen gainean pilatu eta hari eusten zion farola bat botarazi zuen igande goizean. Aseguru etxeko peritua eta udal arkitektoak ikusi ondoren, asteartean kendu zituzten toldoak

LAKUNTZA

Maluta batek ez, baina elur maluta mordo batek karga ederra dutela ikusi zuten lakuntzarrek igande goizean. Plazan estalpe modura jarritako bost toldoen gainean elurra pilatu zen larunbatetik iganderako gauean, eta kargagatik haiei eusten dien faroletako bat makurtu eta erori egin zen. Plazaren iparraldean dagoen farola da eroritakoa. Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza alkateak azaldu duenez, "gelditzen ziren beste lau toldoen kableak suhiltzaileen laguntzaz moztu genituen, eta maindireen moduan zintzilik utzi genituen; gainean elur gehiago ez pilatzeko".

Eta hala utzi zituzten aseguru etxeko peritua etorri eta guztia aztertu zuen arte. Gauza bera egin zuen udal arkitektoak. Asteartean kendu zituzten toldoak. Peritua eta arkitektoa zer gertatu zen aztertzen ari dira eta harremanetan daude, Razkinek azaldu duenez. Balizko kasu batean beste toki batetik haustea aurreikusia zegoen, ez farolaren zimenduak huts egitea.

Alkateak azaldu duenez, "elurrari beldurra diogulako, toldoak, normalean, lastailean kentzen ditugu. Lakuntzako Pertza elkarteak bere eguna azaroaren 13an ospatu zuen. Pandemiagatik kalean jarduerak egin nahi zituzten eta, horre-

gatik, utzi ziren toldoak jarrita. Arriskatu gara eta elurrak harrrapatu gaitu".

Plaza berritzeko lanekin batera, 2014ko agorrileko festen aurretik, mustu zuen Lakuntzak bost toldoekin eta hainbat faroletara helduta sortutako estalpea. "Jendeari gustatzen zaio. Baina jartzeko eta kentzeko zaila da. Enpresek dagoeneko ez dute jarri nahi, eta azken urteetan udala jartzen ari zen", azaldu du alkateak. Lakuntzako Udalak toldoekin zer egin galdetuta, Razkinek esan duenez, "orain lasai pentsatu beharko dugu zer egin, mahai gainean hainbat aukera jarri eta aztertu beharko dira".



Utzubar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txustorra.



Estrategia planaren diagnosia egina

2021-2027 Sakanako Estrategia Plana egiteko prozesuaren bigarren fasean aurrekoaren diagnosi partekatua egin du Sakanako Sozioekonomia Behatokiak. Erronkak eta funtsezko aldagaiak ere identifikatu ditu. Iritzia emateko aukera dago

SAKANA

Dinabidek, atzera ere, Sakanako Sozioekonomikoa Behatokiaren bilera hartu zuen azaroaren 24an. Ibarreko bigarren estrategia plana egiteko prozesua martxan da. Sektoreka lantaldeek beraien diagnosiak egin zituzten eta haiek komunean jarri eta plan berrirako oinarriak jartzeko bilera izan zen joan den asteakoa. Behatokiak 2014 eta 2020 Sakanako Estrategia Planaren balorazio positiboa egin zuten: "hazteko potentziala duten proiektuak martxan jarri dira. Lankidetzeta eta konfiantza guneak sortu dira eta arlo guztietan ezagutza sortu da".

Horrekin batera sektore bakoitzaren ekintza ildoak egokitzeko beharra ikusi zen, erronka eta proiektu handiagoei aurre egiteko. Hala, industria joerak dira: enpleguaren berreskurapena, enpresa gutxiago baina handiagoak ditugu. Bestalde, dinamika demografikoak langi-



Behatokiaren bilera Dinabiden. SGA

le gabezia eragina du. Energia arloan erronka nagusia da energia eta klima testuinguru berrirari egokitzea. Turismoan bizikletendako ibilbidea eta Donejakue proiektu traktoreak izanen dira. Agroelikaduran,

berriz, eraldaketa eta dibertsifikazioa beharrezkoa jo da sektorea garatzeko. Etxarri Aranzko eraldaketa gunea eta Dastatu Sakana proiektu estrategiko gisa definitu dituzte. Bestetik, beharrezkoa jo da udal eta merkatarien arteko elkarlana tokiko merkataritza sustatzeko. Azkenik, tokiko administrazioa berritzailea izatea ezinbesteko jo da, "proiektu berritzaileen bidez herritarren beharrei erantzutea helburu duena".

Diagnostikoa www.sakanagaratzen.com webgunean kontsultatu daiteke. Hura sakandarren iritziekin osatzea eta aberastea nahi dute. Horregatik, web orri berean hamalau galderaz osatutako galdetegiak jarri dute, herritarrek iritzia eman dezaten. Ekarpenak egiteko beste modu bat da info@sakanagaratzen.com e-postara idaztea. Planaren hirugarren fasea abenduan hasiko da: agertokiaren definizioa eta 2027ko agertoki apustua.

Txirinbulo haur eskolako langileek bi lanuzte egingo dituzte

LAB sindikatuak azaldu duenez, Altsasuko Txirinbulo haur eskolako langile guztiek lanuzte bana egingo dute abenduaren 10ean eta 21ean, 12:00etatik 14:00etara, "Altsasuko Udalaren utzikeriak eragindako prekarietatearen kontra", eta "euren lana behar bezala egiteko beharrezkoak diren baliabideen falta" salatzeke. Abenduaren 10ean 12:30ean kontzentrazioa egingo dute udaletxearen aurrean.

LAB-ek gaineratu duenez, langileek urteak daramatzate udaleko gainerako langileei aplikatzen zaien hitzarmen bera aplikatzeko eskatzen, baina aplikatzen zaien hitzarmena Estatukoa da, eta "hitzarmen horrek soldata lotsagarriak eta baldintza latzak" dituela salatu dute.

2017an egin ziren Txirinbulo haur eskolako lanak, baina langileek salatzen dutenez, "udala, eraikuntzaz gain, ez da beste ezertaz arduratu". Eraikinak lehen momentutik hezetan, itxesurak eta matxurak dituela gaineratu dute, eta mantenu egokia egitea eskatu zaiola udalari, baina "ez dutela erantzunik jaso". Materialak erosteko duten partida ekonomikoa ere "eskasa" dela salatu dute, eta prestakuntza ikastaroetan ikasitakoa ezin dutela praktikara eraman "baliabiderik ez dagoelako".



Uharte Arakilgo liburutegia. ARTXIBOA

Eskola ipuina sortzeko katearen begia izan da

Hainbat eskolen artean bi ipuin sortu dituzte, Giza Eskubideekiko errespetua eta urraketaren aurkakoa

UHARTE ARAKIL

Abenduaren 10ean ospatuko den Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna dela eta, Herritarrekiko Harremanetarako Departamentuak hirugarren urtez jarraian abiarazi du *Ipuina eskuz esku Giza Eskubideak* izeneko ekimena. Nafarroako 40 ikastetxe eman dute izena, haien artean Uharte Arakilgo eskolak. Bertako Lehen Hezkuntzako 4. eta 5. mailako hamasei ikasle dira ekimenean parte hartu dutenak; Gobernuak ikastetxeei proposatu die parte hartzaile guztien artean bi ipuin sortzea katean, bata euskaraz eta bestea gaztelaniaz, giza eskubideen babesa gaitzat hartuta.

Aingeru Epaltza idazleak idatzi du ipuinaren hasiera euskaraz eta Tadea Lizarbe idazleak gaztelaniazkoa. Egunero ikastetxe batek ipuinari paragrafo bat edo bi gehitu dizkio. Giza Eskubideei buruzko hilabete osoko lan eta hausnarketak ikasleen eta irakasleen parte hartze zuzena eta aktiboa biltzen duenak. Bi ipuinak liburu batean bildu eta argitaratuko dira. Liburuaren aurkezpenarekin batera, bi ipuinak abenduaren 11n kontatuko eta interpretatuko dituzte Iruñeko Gazteluko Plazan.

Parte hartzearen bidez osatuko dute Gazte Txokoko plangintza

Irakokizunak: gazteria@altsasu.net eta intxostiapunta@altsasu.net edo 948 564 785 eta 608 617 778

ALTSASU

Laugarren urtez jarraian, gazteek Intxostiapunta gazte gunearen hurrengo urteko plangintzari proposamenak aurkezteko aukera izanen dute. Blanki Torres gazteria teknikariak azaldu duenez, "ezinbestekoa da gazteek plangintza osatzeko prozesua parte hartzailea izatea, horrela gazteen ikuspuntu, ardurak, behar, kezka, interes, eta abarrak gertutik ezagutzeko aukera dugulako". Ezagutza horrek plangintza erakargarriagoa egiteko aukera ematen die.

Horregatik, Torresek gazte altsasuarrak Intxostiapuntaren heldu den urteko plangintzarako proposamenak egitera gonbidatu ditu. Teknikariak azaldu duenez, "genero ikuspegiaren oinarrituta dagoen prozesu bat izanen da. Hori dela eta, neskek eta mutilak eginen dituzten proposamenak agerian jartzeaz aparte, atal desberdinetan sartuko ditugu, bi sexuen abiapuntuak eta behar zehatzak zein diren azalertzeko. Horrela, ikuspegi inklusiboa, askotarikoa eta



Intxostiapunta gazte gunean plangintza osatzeko parte hartze prozesua. ARTXIBOA

errealak lortu dugu, batzuek zein besteek egindako proposamenak jasoko dituen jarduketara plana diseinatzeko".

Parte hartze prozesuaren berri emanez, gazteak iradokizunak eta proposamenak egitera

gonbidatu dituzte. Aipatutako e-postez eta telefonoz aparte, ekarpenak honako foroetan ere egin daitezke: sare sozialak, Gazte Txokoko asanbladetan edo ikastetxeetan jarritako kuxen bidez.



Saritutako margolariak. GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Eskubideak marraztu haien berri izateko

Oinarrizko Zerbitzuen Mankomunitateak Haurren Eskubideei buruzko marrazki lehiaketa antolatu du

ALTSASU / OLATZAGUTIA / ZIORDIA

Nazio Batuen Erakundeak Haurtzaroaren nazioarteko eguna izendatu zuen azaroaren 20a. Data hori kontuan izanik, Burunda mendebaldeko Oinarrizko Zerbitzuen Mankomunitateak marrazki lehiaketa antolatu zuen. Haren bidez Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioan jasotako eskubideen berri eman nahi zieten Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko haurrei. Txikiak eskubide haietako bat aukeratu eta marrazkia egin behar zuten. Irudiak ikastetxeetan egin dituzte, lehiaketa Lehen Hezkuntzako eta DBHko lehen zikloko ikasleei zuzenduta baitzegoen lehiaketa.

Makina bat lan aurkeztu ziren. Haiek Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko haurtzaroko tratu onaren sustapen sarearen blogean eta Altsasuko liburutegiko kristaletan ikusgai egon ziren aza-

roaren 17tik 21era. Koldo Arnanz eta Itziar Nazabal margolariak eta Ana Begiristainek (haurtzaroko tratu onaren sustapen sareko kidea) osatu zuten epaimahaia eta sariak aurreko ostileran banatu zituzten.

Sarituak

LHko 1-3 mailak

- 1. Nahia Diaz San Felipe
- 2. Iria Cancho Pardo
- 3. Anuska Lizarraga

LHko 4-6. mailak

- 1. Zoe Martin Sales
- 2. Noemi Iranzu Otavalo
- 3. Naroa Zabala Remiro

D.B.H. 1. eta 2. mailak

- 1. Izai Igeltz Irizar
- 2. Iزار Díez Erro
- 3. Naiane Martínez

Komuna ez dela paperontzia ikasi zuten Atakondoan

Giza garapen jasangarria lortzeko helburuz, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) 2030 agendaren 6. puntuak saneamendua jorratzen du. Eta, horri lotuta, NBEk WCren edo Komunaren Nazioarteko Eguna izendatu zuen azaroaren 19a. Harekin bat egin zuen Nilsa enpresa publikoak, hondakin urak garbitzeaz arduratzen dena, eta hezkuntza

programa garatu zuen Atakondoa eskola publikoan. Haren bidez ia ehun ikaslek ikasi zuten komuneko tazan bakarrik komuneko papera besterik ezin dela bota. Nilsak gogorarazi duenez, pixa oihalak, konpresak, kotoi zotzak, kotoiak, preserbatiboak eta bestelakoak errefusara bota behar dira, eta ez komuneko zulora. Nahiz eta produktu horien ontzietan biodegradagarriak direla jarri. Etxeko sareak, herriko estolderia eta araztegia buxatzen dute.

D ereduan aurrerapausorik ez

Azken zazpi ikasturteetan ikasleen %81 inguru D ereduan matrikulatu dituzte gurasoek. Aurten %81,6 dira. Aurretik zetorren goranzko progresioa etenda dago. Ikasturte honetan gora egin duen eredu bakarra A izan da, puntu bat gora

SAKANANA

Sakanan hegemonia duen hizkuntza gaztelania da. Euskaren normalizazioaren aldeko tresna onenetako bat irakaskuntzako murgiltze eredu da, D eredu. Haren bidez haur eta gazteek euskara ezagutzen dute. Hala adierazten dute hezkuntzako eta soziolinguistikako adituek ere. Horregatik, Sakanan ofizialak diren bi hizkuntzak ikasteko modurik onena D eredu dela nabarmendu dute. Euskara Zerbitzutik gurasoak D eredu ezagutzera gonbidatu dituzte. Eta gainontzeko sakan-darrei bere inguruan D ereduaren alde onak nabarmentzeko.

Ibarreko ikastetxeetako matrikulazioa kontutan izanik, gora egin duen eredu bakarra A eredu da, gaztelaniazko klaseak eta euskara ikasgai duena. A ereduak puntu bat egin du gora eta gaur egun ikasleen %14,8 dira eredu horretan ikasten dutenak. Bestalde, murgiltze ereduak, D eredu, 0,9 puntu jaitsi da. Ikasleen %81,6 dira euskaraz ikasten ari direnak. Datua 2015-2016 urtekoaren parekoa da (%81,4 orduan). Ikasturte hartan gaitu zuen murgiltze ereduak estreinako matrikulazioaren %80ko langa. Baina ordutik gora eta behera egin du kopuruak, baina sekula %82,5etik gora egin gabe. Bestalde, B ereduak, gaztelania eta euskara irakasteko baliatzen duena, 0,1 egin du behera. B ereduaren ikasleen %3,6 ikasten ari dira.

Ikasturteko berritasuna da Uharteko eskolan A eredu desagertu dela. Ikastetxe horretan murgiltze eredu besterik ez dago gaur egun. Hortaz, A eredu Irurtzun eta Altsasun eskaintzen da, eta B eredu Altsasun.

Zikloa

Haur Hezkuntzan ikasleen %20,39 hartzen ditu, 582 ikasle, aurreko ikasturtean baino sei



Ikasleak irteera batean. ARTXIBOA

AZKEN ZAZPI URTETAN D EREDUA GORA ETA BEHERA IBILI DA, BAINA %82,5 GAINDITU GABE

ikasle eta 0,3 puntu gutxiago. Murgiltze ereduaren ikasleen %86,1 daude (501 ikasle, zazpi gutxiago). Aurrekoarekin alderatuta D ereduak 0,3 puntu egin du behera. 2020-2021 ikasturtean A ereduak berriro bi zifrako matrikulazioa lortu zuen Sakanan, %10. Ikasturte honetan kopurua errepikatu du 58 ikaslerekin (aurrekoan baino bat gutxiago). Azken bi urteetako joera etenez, B eredu da ehunekoan eta kopuruan gora egin duen eredu bakarra. Ibarreko ikasleen %3,9 ari dira ikasten eredu horretan (0,3 puntu eta 2 ikasle gehiago).

Lehen Hezkuntza ikasten ikasleen %48,24 ari dira, 1.377 guztira, aurrekoan baino 55 ikasle eta 2,16 puntu gutxiago. Euskarazko murgiltze ereduaren ikasleen %81,8 daude (1.126 ikasle, 39 gutxiago), aurrekoan bezala 0,4 puntu egin du gora

kopuruak. A ereduaren ikasleen %12,4 daude, aurreko ikasturtean baino 0,3 puntu gutxiago (171 ikasle, 11 gutxiago). Azkenik, B ereduaren joan den urtean hartutako beherako joerari segida eman dio 0,1 puntu galduz, ikasleen %5,8 ari dira B ereduaren ikasten (80 ikasle, 5 gutxiago).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasleen %31,36 ari da ikasten, 895, aurreko ikasturtean baino 74 ikasle eta 2,46 puntu gehiago. Aurreko ikasturtean estreinako DBHn D ereduaren matrikulatutako ikasle sakan-darren kopuruak %80ko langa gaitu zuen. Ikasturte honetan euskarazko murgiltze ereduaren ikasten ari direnak %78,4 dira. 31 ikasle gehiago badaude ere, aurreko ikasturtearekiko euskarazko ereduaren matrikulazioa 3,3 puntu jaitsi da. DBHn ez dago B eredurik eta behe mailetan eredu horretan ikasi duten ikasleek DBHra iristerakoan gurasoek, normalean, A ereduaren matrikulatzen dituzte, euskaren kaltetan. Eta ikasturte hau ez da salbuespena izan. Ikasleen %21,6 daude eredu horretan, aurreko urtean baino 43 ikasle eta 3,3 puntu gehiago.

Cukeratu gustoko duzun oparia

OLENTZERO

gure txokotik pasa da eta!



gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus | Foru plaza, 23-1. Altsasu



Gregorio Riezu, Candi Aranz eta Victorino Lopez de Goikoetxea, 2019ko omenaldian.

Barricarte Oroimenezkoan Candi Aranz izanen dute gogoan

ATLETISMOA Abenduaren 8an 11:30ean hasiko da lasterketa eta sortzaileari, Aranzi, omenaldia egingo zaio

Maider Betelu Ganboa ALTSASU

Iazko etenaldiaren ondoren, bueltan da Zubeztia elkarteak antolatutako Oinezko Lasterketa-Alberto Barricarte Oroimenezkoa. Aurten Oinezko Lasterketaren 40. edizioa izango da jokatu dena, zenbaki borobila, aldi berean 37. Alberto Barricarte Oroimenezkoa izanen dena. Ohi bezala, abenduaren 8an, izanen da, Ama Birjina Sortzez Garbiaren egunean, Zubeztia elkarte ardatz dela.

Zubeztiako lasterketa betaranoa urte bukaeran jokatu diren San Silvestreak prestatzeko lasterketa aproposa da, proba herrikoa, sakandarren artean proba kuttuna. 10 kilometroko lasterketa da, Altsasuko herri gunean prestatutako zirkuituari lau itzuli emanez jokatu dena. Zubeztia elkarte paretik abiatuko da, udaletxe parean, eta 18 urtez gorako gizonezkoek eta emakumezkoek hartu ahal izango dute parte. Izena ematea zabalik dago Dantzaleku Sakana Atletismo Klubaren webgunean (3 euro). Egunean bertan 10:00etatik 11:30era Gure Etxean izena ematen dutenek, aldiz, 5 euro ordaindu beharko dituzte.

Lasterketako azken edizioan, 2019an, 166 korrikalarik hartu

CANDI ARANZEK URTERO EMATEN ZION HASIERA ZUBEZTIAKO PROBARI. AURTEN OMENDUKO DUTE

zuten parte, eta azkarrenak Antonio Etxeberria (31:52) iruindarra eta Izaskun Beunza (37:42) olaztiarra izan ziren.

Candi Aranz sortzailea gogoan

Lasterketa honen sortzaileetako bat berriki zendutako Candi Aranz Garcia zen. Gaztetan korrikalari fina izan zen Aranz, eta zendu arte Altsasun atletismoa sustatzeko makina bat lan egin izan zuen. Candi Aranz izan zen Barricarte Memorialaren sortzaileetako bat eta urte luzez antolakuntzan buru belarri aritutakoa. Berak ematen zion probari irteera. Hain zuzen ere, lasterketako azkeneko edizioan, 2019. urtean, omenaldia jaso zuen Aranzek, Victorino Lopez de Goikoetxearekin eta Gregorio Riezurekin batera.

Candi Aranzek berak 2019ko omenaldian azaldu zuenez, orduko Zubeztiako juntari lasterketa antolatzearen ideia proposatu zion –Agustin Aizpurua zen presidentea–, eta ongi iruditu zitzaion. Horrela, 1980. urtean egin zen lehendabiziko lasterketa. Alberto Barricarte izan zen beste antolatzaileetako bat, Olaztin auto istripuz zendu zena, eta horregatik duela 37 urtetik Alberto Barricarte Memoriala izena hartu zuen probak.

Zubeztia elkarteak urte luzez probaren antolakuntzan ibilitako Candi Aranz gogoan izango du, eta 11:30ean, lasterketa hasi baino lehen, omenaldia xumea egingo diote elkartekide eta atletismo sustatzaile izandakoari.

Dena prest Urdiaingo Ziklo-kroserako

ZIKLO-KROSA Igandean jokatu da II. Benigno Mendia 'Kani' Oroimenezkoa. 11:00etan kadeteen proba abiatuko da, eta 12:00etan jubenilena, eta Burunda Txirringularitza Taldeak lasterketa ikusgarria jarraituzera animatu ditu sakandarrak

Maider Betelu Ganboa URDIAIN

Lohia, aldapak, trabak eta ibilbide gorabeheratsuak gustuko dituztenek Burunda Txirringularitza Taldeak igandean antolatutako Urdiaingo Ziklo-krosa ezin dute galdu. II. Benigno Mendia Kani Oroimenezkoa kadeteen eta juniorren mailako lasterketa izanen da. Aldaketarik ezean, abenduaren 5ean, igandearekin, 11:00etan abiatuko da kadeteen lasterketa, eta hura bukatuta, ordu bat geroago jubenil mailakoa hasiko da.

Burunda Txirringularitza Taldeak 2019ko abenduan antolatu zuen lehenengoz Urdiaingo Ziklo-krosa. Klubeko hainbat txirringulari animatu ziren urte hartan ziklo-kroseko lasterketetan aritzera, eta haiei etxean aritu ahal izateko aukera bat eman nahian antolatu zuten proba. I. Benigno Mendia Oroimenezkoa izendatu zuten, garai batean Benigno Mendia zena ziklo-krosean ibiltzen baitzen, eta berari esker makina bat lasterketa antolatu zirelako Urdiainen, Euskadiko Ziklo-Kros Txapelketa tartean.

2019ko Urdiaingo Ziklo-krosak harrera ona izan zuen. Kadeteetan Quesos Albeniz-Burunda taldeko Mikel Unzilla Aldasoro etxarriarra (28:38) eta Nafarroa Ermitagaña taldeko Nahia Imaz Perez altsasuarra (25:54) gailendu ziren eta juniorretan El Caserio-Valsay taldeko Adrian Losarcos (42:47) eta Grupo Elektrako Edurne Izkué (44:52).

Ibilbidea, futbol zelaia ardatz

Urdiaingo Ziklo-kroseko ibilbidea 2019 urtekoaren ia berbera da, Sagardia auzoaren inguruan egin den aldaketa txiki bat izan ezik. Aitziber futbol zelaia ardatz hartuta, 2,3 kilometroko zirkuitua prestatu dute Burundakoek. Lasterketa Felipe kale parean hasiko da, Urdiaingo behealdean, eta tropela frontoiraino igo on-



Ziklo-krosa lasterketa berezia izaten da. Irudian, 2019ko Urdiaingo Ziklo-krosa.

doren, ezkerrean egin eta Aitziber futbol zelaira sartuko da. Hango larreetan itzulirean bat eman ondoren, gora egin eta Kamiozar kaletik herrira sartu eta parkeraino iritsiko dira; partzelarian aurrera egin eta,

larreetan sartu eta behera eginez, atzera ere futbol zelai parera agertuko dira txirringulariak. Beheraino jarraituko dute eta Sagardia kaletik Urdiaingo sarrerako kalera aterako dira. Helmuga frontoi parean dago.



Gorka Izagirrek (Astana) merezimendu osoz lortu zuen garaipena. UTZITAKOA

Gorka Izagirre Abadiñon txapeldun

Igandean VII. Abadiño Udala Saria Ziklo-krosa jokatu zen. Eurpean eta lokatzaz gainezka Gorka Izagirre Insaustik sekulako lezioa eman zuen eta txapeldun handia izan zen (1:02:59). Junior mailan Mikel Regil 19. sailkatu zen, eta kadete mailan Ekain Imaz laugarren.

PALA Sakanako Pala Txapelketako partidak, Altsasun

Aurreko astean hasi zen Gure Pilota Sakanako XVII. Nesken Pala Torneoa. Guztira 65 palista gehiago ari dira lehiatzen, gaztetxoek eta helduen mailatan. Gure Pilotako Miguel Angel Aristorenak azaldu bezala, sekulako maila du txapelketak eta Etxarri Aranatzek jokaturako lehen jardunaldiko partidak ederrak izan ziren.

Asteburu honetan bigarren jardunaldia dago jokoan. Partidak Altsasuko Burunda pilotalekuan jokatu dira, gaztetxoek partidak larunbat goizean, 10:00etatik aurrera, eta helduen partidak igandean, 11:00etatik aurrera. Igandean, Lehen Mailan Maider Saralegik eta Ane Kerejetak Enara Mazizior eta Izar Parot izanen dituzte aurkari, eta Eliteen Mailan Leire Galdosek eta Maider Huizik Amaia Espinalen eta Maider Mendizabalaren kontra jokatu dute.



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Igoa eta Murillo, txapeldunordeak

PALA Azaroaren 14an Aldatzeko Iturgi pilotalekuan Emakumezkoen Paleta Gomako Nafarroako Txapelketako Lehen Mailako finala jokatu zen. Gure Pilotako Uxue Murillok eta Irati Igoak Auñamendi taldeko Saragueta eta Ardanaz izan zituzten aurkari. Lehia oso estuan, Auñamendikoek 22 eta 25 irabazi zuten, 3 tanto eskaseko aldearekin.



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Eskala eta Mendiñueta, gutxiatik

PALA Aurreko ostiralean Emakumezkoen Paleta Gomako Nafarroako Bigarren Mailako finala jokatu zuten Gure Pilotako Ane Eskala eta Uxue Mendiñueta etxarriarrek Larraungo Marian Saralegi eta Naroa Otxoa palisten kontra, Labriten. Etxarriarrek aurreratu ziren, Larraungoek 27na berdindu, eta azken hiru tantoak Saralegiren eta Otxoaren aldera erori ziren.

Ezkurdiak eta Tolosak lehen puntua behar dute

PILOTA Binakako hirugarren jardunaldia jokatu da egunotan. Elezkanok eta Zabaletak Altuna eta Martija dituzte aurkari, lehia gogorrean. Ezkurdiak eta Tolosak egoerari buelta eman beharra dute Iribarriaren eta Rezustaren kontrako partidari.

Binakako Txapelketako hirugarren jardunaldia dago jokoan. Elezkanok II.ak eta Zabaletak astelehenean, abenduaren 6an jokatu dute Altuna III.aren eta Martijaren kontra, Beotibarren (17:00, ETB1). Elezkanok eta Zabaletak orain arte jokaturako bi jardunaldiak irabazi dituzte, eta Altuna III.a eta Martija asteartean Ezkurdiari eta Tolosari irabazita helduko dira partidara, poltsan puntu bat dutela. Altuna eta Elezkanok maila oso onean daude, eta Zabaleteren eta Martijaren artean borroka handia espero da. Beraz, puntu garrantzitsua izango da Tolosan banatuko dena.

Aldiz, Ezkurdiak eta Tolosak ez dute punturik bildu. Ez dira gaizki jokatu ari, baina egoerari buelta eman beharra dute eta lehen puntua eskuratu, animoz lasaia aritu eta urduritasuna ez azaltzeko. Asteazkenean jokatu dute, abenduaren 8an, Iribarriaren eta Rezustaren kontra, Bergaran (17:00, ETB1). Partida oso zaila dute aurretik.

Bestalde, Promozioako Binakako lehen bi jardunaldiak irabazita, Bakaikoak eta Elizegik Zubizarreta III.a eta Eskiroz izango dituzte aurkari larunbateko Lizarrako jaialdia mustuko duen partidari.



Nafarroako Banakako Txapelketako finalistak. NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Balda eta Lanza txapeldun

Asteburuan XXXV. Nafarroako Kirol Jokoen Banakako Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren Iruñeko Labrit pilotalekuan kimuen eta haurren mailan, eta bertan sailkatutako pilotari sakandarrak oso ongi aritu ziren.

Kimuen Hirugarren Mailan Arbizuko Aldabide taldeko bi pilotarik jokatu zuten finala, Jurgi Sarasibarrek eta Manex Baldak. Balda izan zen Nafarroako txapelduna, taldekideari 2 eta 18 irabazi eta gero.

Haurren Hirugarren Mailan Arbizuko Aldabideko Xabier Etxabarrik eta Altsasuko Pilotajaukuko Urko Lanzak neurtu zituzten indarrak, eta partida estuan, azkenean Urko Lanza altsasuarrak jantzi zuen Nafarroako txapela, Etxabarri 14 eta 18 irabazita. Bukatzeko, Haurren Bigarren Mailan Aldabideko Jokin Olarrak Aurrera taldeko Julen Baleztena izan zuen aurkari eta borroka estuan, azkenean Baleztena 18 eta 14 gailendu zitzaion Olarrari.

Banakakoa despedituta, Binakako Nafarroako Pilota Txapelketari ekingo diote pilotariek.

Lagun Arteak eta Etxarrik partida dute, baina Altsasuk ez

FUTBOLA Emakumezkoen Maila Autonomikoan eta Gizonezkoen Erregionalean ez da jardunaldirik jokatu

Abenduko zubian kategoria batzuetan liga jardunaldia jokatu da, baina beste batzuetan ez. Gizonezkoen Lehen Maila Autonomikoan Mendigorrian jokatu du Lagun Arteak, Mendi taldearen kontra, larunbatean,

16:00etan. Aurreko jardunaldian Lagun Arteak eta Lerinések jokatu beharreko partida atzeratu egin zen, elurrarengatik. Emakumezkoen Lehen Maila Autonomikoan berdina gertatu zitzaion Altsasuri, ezin izan zuten

Mulierren kontrako partida jokatu ahal izan, eta asteburu honetan ez dute jardunaldirik.

Preferente mailan, aldiz, Etxarri Aranatzek Aibares taldea hartuko du larunbatean, 12:00etan, San Donato zelaian. Arerio zuzenen arteko partida izan da.

Gizonezkoen erregional mailan asteburuan ez da jardunaldirik jokatu. Aurreko jardunaldian Altsasuk bana berdindu zuen Gazte Berriakekin eta sailkapenean hirugarrena da.

Iskiza Sakana, trantsizio urtean

GIMNASIA ERRITMIKOA Iskizako txapelketa taldeak denboraldi bikaina egin du eta Valladoliden jokaturako Espainiako Txapelketatik itzuli berri da. Orain, gimnasia erritmikoko araudi berriei egokitzen ari dira Iskiza Sakanako talde guztiak, gogotsu

Maidar Betelu Ganboa SAKANA

Iskiza Sakana Gimnasia Erritmikoko taldea sasoi betean dago. Batetik, eskolan 39 gaztetxok eman dute izena eta irail bukarran hasi zuten trebakuntza denboraldia. Bestetik, Nafarroako Kirol Jokoen taldean 20 gimnasta daude eta martxoan hasiko diren Nafarroako Txapelketak prestatzen ari dira, eta, azkenik, txapelketako taldeak –zazpi gimnasta daude– atsedean hartu du. Urritik hasita astebururo lehiaketak izan dituzte eta aurreko astean Valladoliden jokaturako Espainiako Gimnasia Erritmikoko Txapelketan aritu ziren.

"Izen emate datuak positiboak dira eta taldea gora doa. Dena den, beraien pozik egonda, gureta nahikoa" azaldu du Iskiza Sakanako monitorea Olaia Agirrek. Berarekin batera Maria Remolinak jarraitzen du irakasle lanetan eta aurten Miriam Martin gehitu zaie, ikasle ohia. Bakoitzak talde baten ardura du eta beharrezkoa denean gaintzeko monitorean babesa du.

Espainiako Txapelketa

Valladolidetik etorri berria da Agirre, Iskizako txapelketako taldea Espainiako Gimnasia Erritmikoko Txapelketan aritzeaz. Jubenil mailan lehiatu ziren. Banakako Txapelketan Eider Goikoetxea arbizuarra izan zen Iskizako ordezkaria, eta taldekakoan hurrengo seikotea aritu zen: Ane Iturrioz, Amaia Marin, Naroa Diaz, Bea De Sousa, Irune Etxaniz eta Nagore Erdozia. "Espainiako Txapelketan ondo aritu dira eta pozik egotekoa da. Ordura arte sekulako denboraldia egin zuten, Espainiako Txapelketan boroildu nahi zutena, baina akats txiki batzuk egin zituzten eta

hasieran pena horrekin geratu ziren" aipatu du Agirrek.

Urritik hasita Iskizako txapelketa taldea ez da gelditu. "Donostian parte hartu genuen, Gasteizen egon ginen, baita Barakaldoko BEC-en ere. Nafarroan pare bat txapelketa egin genituen eta Gernikan ere izan ginen. Gelditu gabe egon gara, eta sekulako emaitzak izan ditu taldeak. Eider Goikoetxeak Banakako Nafarroako Txapelketa irabazi zuen, Iskiza taldea Nafarroako Taldekako Txapelketan onena izan zen, Gasteizen Iskiza lehena sailkatu zen taldeka, Espainia mailako torneorik garrantzitsuenean, Euskal Gym-en, 50 talderen artean Iskiza hamaikagarren sailkatu zen... denboraldi bikaina egin dugu. Horregatik Espainiako Txapelketan denboraldia primeran bukatu nahi zuten, eta ez zen gaizki joan, baina akats txiki horien pena izan dute" azaldu du Agirrek.

Nafarroako txapeldun gisa iritsi zen Iskiza Valladoliden jokaturako Espainiako Txapelketara, junior mailan. Eider Goikoetxeak Banakakoan zintarekin egin behar izan zuen lana. Zintak badu bere zailtasuna, zintak ezin baitu lurra ukitu. "78 gimnasten artean 52. sailkatu zen Eider. Ez dago baxter gaizki. Beste kirol batzuetan buelta emateko aukera dago baina gurean ez. Minutu eta erdiko ariketa da, eta tarte horretan egindako lan guztia era-

**ISKIZA SAKANAKO
TXAPELKETA TALDEKO
GIMNASTEK
DENBORALDI EDERRA
EGIN DUTE**

kutsi beharko duzu. Orduan, nerbioak kontrolatzea zaila izaten da. Eiderrek bere lana erakustea lortu zuen, eta nahiz eta akats bat izan, ariketa ondo atera zen eta pozik gaude" azaldu du Agirrek.

Espainiako Taldekako Txapelketan 114 taldeetatik 49. sailkatu zen Iskiza. Hiru uztai eta bi soka erabili behar zituzten, konbinazio nahiko berezia. "Oso ongi ibili ziren. Bi akats txiki egin zituzten, baina, bestela primeran" gaineratu du entrenatzaileak, balorazioa "oso ona" dela nabarmenduz. "Agian momentuan beste gauza bat espero genuen, ez klasifikazioari begira, baina horri buelta eman diogu jada" dio, irribarrez.

Trantsizio urtea

Izan ere, erronka berezia dute orain Iskizakoek. "Olinpiar Jokoen ondoren gimnasia erritmikoan araudi berria sartzen da indarrean, eta 2022 urtetik aurrera txapelketa guztietan arau berriak jarraituz lehiatu beharko dugu. Orain arte, esaterako, aparatuari garrantzia handia ematen zioten eta aparatuen azpitik egiten ziren txilinbuelta horiei guztiei. Ariketek nolabait teko arriskua zuten. Baina orain horri muga jarri zaio eta garrantzi handia emango zaio alde artistikoari, musika interpretatzeari, orain arte eman ez zaiona. Hortaz, gure lehenengo erronka arau horiek ulertzea eta tapiz gainera eramatea da, ilbeltzetik aurrera irizpide horiekin hasiko baikara lehiatzen. Hasieran zaila egingo zaigu, baina poliki-poliki joango gara erritmoa hartzen. Trantsizio urtea da honakoa, eta ilusioz gaude" nabarmendu du.



Jubenil mailako Iskiza Sakana taldeko seikotea. ISKIZA



Jubenil mailan bakarkako modalitatean aritzen den Eider Goikoetxea. ISKIZA

Nafarroako Kirol Jokotako taldean 2022ko Nafarroako Txapelketak prestatzen ari dira, arau berri horiekin jokaturako direnak. Martxoan hasi ohi dira, eta apirilean bukatu. Nafarroan gimnasia erritmikoan 3. eta 4. mailak daude, eta Banakako Txapelketan lehiatu ziren Iskizakoak, 4. mailan, eta batzuk 3. mailara igotzea lortu zuten. Taldeka, aldiz, ez ziren lehiatu. Hortaz, 2022an Iskizako talde guztiak 4. mailan ariko dira. "Gimnastak oso gogotsu daude" aitortu du Agirrek.

Gabonetakoa lotu gabe

Iskizak oraindik ez du erabaki aurten Eguberrietako gimnasia erritmikoko erakustaldia egingo duen ala ez. Pandemiaren bilakaeraren arabera hartuko da erabakia. "Egiteaz, abenduaren 18an litzateke, Olaztik kiroldegian, baina oraindik ez dugu erabakirik hartu. Gimnasta guztiek egin dute lan, eta ez dugu nahi inor kanpoan geratzea konfinatuta dagoelako. Hortaz, erakustaldia atzeratu behar bada, hala egingo dugu. Ez zaigu axola" azaldu du.

"Uste dut neskek merezi dutela omenaldia, palistek, nik ez"

MIGUEL ANGEL ARISTORENA LAKUNTZA GURE PILOTA ESKOLAKO PALA ARDURADUNA
PALA Asteartean Nafarroako Zilarrezko Domina jaso zuen Miguel Angel Aristorenak Nafarroako Jauregian, 20 urte luzez emakumezkoen pala sustatzeagatik

Maidar Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Frontoietan aspaldiko ezaguna da Miguel Angel Aristorena Lakuntza. Etxarri Aranazko Gure Pilota elkartearen lan ordainezina egin du neskek palan trebatzen. Egindako lanaren fruitua jaso du, aurten bi aitortza egin dizkiotelako: Etxarri Aranatzko Emakumezkoen Master Cup Pala Txapelketako finalak jokatu zirenean jaso zuen lehen omenaldia, eta asteartean Nafarroako Jauregian Maria Chivite presidentearen eskutik Nafarroako Zilarrezko Domina jaso zuen. Ez da omenaldien oso zalea, eta aitortza berak ez, neskek merezi dutela uste du, baina merezitako omenaldia da.

ALABAK ENTRENATZEKO

Gaztetan pilotaka edo palan ibiltzen zinen?

Garai hartan herrietan mundu guztia eskupilotan, palan edo futboleko ibiltzen zen. Ni 16 urtetaraino eskupilotan aritu nintzen. Txapelketaren bat edo beste irabazi nuen, baina esku txarrak nituen. Horregatik eskupilota utzi eta palan hasi nintzen. Kuadrillan txapelketa batzuk jokatzeko genituen.

Herriko txapelketak ziren?

Bai. Esaterako, sekulako pala txapelketak egiten ziren Etxarri Aranatzko. Luis Igoak, Telletxeak, nik... talde batek antolatzen genituen eta sekulako giroa egoten zen.

Neskek palan entrenatzen hasi zinen zure alabek, Yanirak eta Saioak, pala gustuko zutelako eta haiei irakasteagatik.

Bai, hala da. Garai hartan alabak euren lagunekin etortzen ziren frontoira gu ikustera. Behin esan nien nahi izanez gero kuadrillarekin etortzeko eta hasiko ginela pixka bat palan entrenatzen. "Zuendako kirol polita da hau" aipatu nien. Bospasei animatu ziren, eta horrela hasi ginen. 20-22 urte izango dira.

Garai hartan Etxarri Aranatzko Gure Pilota elkartearen esku pilota landuko zuten, ezta?

Bai. Etxarri Aranatzko orduan esku pilota izarra zen. Guk leku pixka bat egin genuen. Geldigeldi sartzen hasi ginen: hasieran nesken palarako ordu bat, gero bi ordu... kostatu egin zen. **Neskek palan jokatzeko arraroa egiten al zen?**

Bai. Badakizu, garai hartan frontoia mutilena zen. Betiko borroka. Borroka batekin hasi nintzen, baina gero ohartu nintzen beste borroka bat ere bazegoela. Orduan eskupilota eta pala mutilen barruti pribatua zen, eta emakumeak kirol hori egitea... Gu entrenatzen egon eta sarritan atariari joka ibiltzen ziren, eta halakoak; asko kostatu zen normaltzea, urte batzuk. **Frontoian tokia lortzeko borroka latza al zenuten?**

Gure Pilota eskolan ordutegiena oso zorrotz eraman izan dugu

beti, eta talde bakoitzak bere ordutegia zuen. Hortaz, nesken palarako genituen orduak errespetatzen ziren. Baina negua iristen zen, mutilak frontoira joaten ohituta zeuden, eta gurekin topo egiten zuten; saltsa pixka bat egoten zen hor.

Gure Pilota eskolakoei neskekin palan hasteko asmoa zenuela esan zenienean nola hartu zuten?

Ongi. Ventura Mundiñanok urte askotan eraman izan zuen pilota eskola, eta berarekin batera, jende jatorra zegoen: Felix Mozo, Venancio... Neskekin palan hasteko ze ilusio nuen ikusi zutenean animatu ninduten: "aurrera", esan zidaten. Gure Pilota klubetik sekulako laguntza izan dut. Gehiago zen kaleko kontua. Pilota munduan badirudi esku pilota dela bakarrik garrantzitsua. Pala eta gainontzeko erremintak azpian egon dira, eta emakumeena zer esan, beti izaten da bigarren mailakoa.

Sakanan gizonezko palista gutxi daude. Aldiz, emakume pila bat, zuek egindako lanaren emaitza.

Talde bat aurrera ateratzeko atzean ilusioa duen monitore edo arduradun bat behar da, motibazioa duena, txapelketak antolatzeaz arduratuko dena, beste klubetako jendearekin harremana izango duena, hango palistak hemengo txapelketetan parte hartzeko. Lan asko egin behar da. Nik oraindik emakumezkoen pala aurrera ateratze-



Gure Pilotako emakumezkoen pala taldearen ardura izateaz gain, azken urteetan Gure Pilotako pr...

ko ilusioa dut. Bestalde, Gure Pilota taldetik txapeldun pila bat ateratu dira eta ateratzen jarraitzen dute; horrek berak ilusioa mantentzen du.

Hasi zinetenetik hona, emakumezkoen palak gora egin du nabarmen. Izugarri. Emakumezkoen pala sekulako osasunarekin ikusten dut. Baina gertatzen ari dena da azkeneko urteetan emakumezkoak ere eskupilotan hasi direla eta nolabait esateko, erdibanatu dira. Hau da, palista asko ere badabilta eskupilotan. Ez dakit honek zein norabide hartuko duen, baina gaur egun

"BOSPASEI NESKA TREBATZEN HASI NINTZEN; KOSTATU EGIN ZEN, ARRAROA EGITEN ZELAKO"

"EMAKUMEZKOEN PALA ETA ESKUPILOTA SUSTATZEKO LAN HANDIA EGIN BEHAR DA, LAN SERIOAGOA"

nire iritziz maila palan dago; emakumezkoek eskuz oraindik lan handia dute egiteko, aurretik palan egin zen bezala.

GURE PILOTA ESKOLA

Bospasei neskekin hasi zen Gure Pilota Emakumezkoen Pala eskola. Gaur egun zenbat palista daude?

Emakumezkoen pala taldean 36-38 palista inguru ditugu, benjaminetatik hasita helduetara arte. Bestalde, gutxika eskupilotako taldea itzaltzen joan zen; pena ematen zigun, eta taldea berriz martxan jartzen saiatu gara. Aurten lauzpabost mutil eta neska bat ditugu eskupilotako taldean.

36-38 neska palan trebatzen, hori asko da.

Bai. Bakarren batek beti uzten du, baina beti sartzen dira berriak. Aurten oso pozik nago zenbait palista taldera itzuli direlako. Bere garaian oso onak ziren, txapeldunak izandakoak, baina kanpora joan ziren ikastera eta utzi zuten. Orain bueltatu dira, eta horrek sekulako indarra eta ilusioa eman dit. **Zenbat entrenatzaile zaudete?** Olaia Izagirre eta alaba, Yanira Aristorena dira entrenatzaileak.



Presidentea da Miguel Angel Aristorena Lakuntza. Irudian, Yanira alabak zuzentzen duen nesken pala talde baten entrenamenduan.

Ni gehiago ibiltzen naiz antolakuntzan, Nafarroako Pilota Federazioko bileretara joaten, epaile lanetan eta bestelakoetan, baina entrenamenduetatik buelta ematen dut beti. Yanirak entrenatzaile titulua du, geroz eta gehiago eskatzen den titulazioa, eta alde horretatik pozik gaude. Asteazken egunez ditugu entrenamenduak. Lehen talde handiagoak izaten ziren, baina orain sei pertsonako taldeak egin ditugu eta entrenamenduak hobeak dira, dedikazioa ezberdina delako. Ahalegin handia egin dugu, ea nola ateratzen den. Emaitzak ere iritsi dira, Nafarroako Kirol Jolasetako Txapelketetan goraka egin dugulako. Oso pozik gaude.

Itzuli direnen artean Ane Eskala eta Uxue Mendinueta daude. Ekainean Etxarri Aranatzeko jokatuak Emakume Master Cup Pala Txapelketako Lehen Mailako finalistik izan ziren, eta oso gutxiagatik galdu zuten Maider Saralegiren eta Maddi Galarzaren kontra.

Ane eta Uxue oso palista onak dira. Bere garaian Euskal Herriko txapelak izan ziren, eta orain hor dabilta, garai bateko erritmoa hartzen, gustu-

ra. Frontoian beraiek ikustearekin bakarrik sekulako gorakada dut. Asteburuan Nafarroako Bigarren Mailako txapelak izan ziren. Gure Pilotako beste zenbait ere oso ongi dabilta, Andrea eta Izar Parot, esaterako. Irati Igoa ere Gure Pilotakoa da, eta oso maila onean dago. Todoterrenoa da, denetarako balio du: Mulierreko futbolaria, palista, pilotaria... Yanira bueltatuko balitz, sekulako bikote polita egingo lukete.

Alaba bueltatzen animatu beharko duzu. Txapeldun handia zen.

Hori berak ikusi beharko luke, baina ona zen. Makina bat txapel dauka. Orain hasi berriak eta beteranoak, familia osoa gaude taldean, eta hori da politena. 8 urteko neskek, beraiek ikusita, palan jarraitzeko ilusioa izango dute. Izan ere, hemendik ez dira profesionalak izaten aterako. Zergatik jarraitu? Gustukoa dutelako.

Zer du palak?

Ez dakit zer duen, baina palan hasi eta guztiz harrapatu ninduen. Jende askok dio hori. Kirol osoa da, gorputza guztia mugitu behar duzu. Teknika, fisikoa, taktika... guztia lantzen

da. Ez da garestia eta herri guztietan dago frontoia. Bi pertsonarekin oso gustura jokatu da, eta laurakin hobe. Gozamen hutsa da. Nik 45 urterekin utzi nuen, gorputzak nahikoa zela esan zidalako.

Gure Pilotan izena eman daiteke oraindik?

Nik beti aukera ematen diet. Probatu dezatela, hori da garrantzitsua, eta gustuko badute segi dezatela.

Emakume Master Cupek pala txapelketa antolatu izanak emakumezkoen palari bulkada eman dio?

Nolabaitekoa, hor utziko dugu. **Emakumezkoen palak eta eskupilotak aurrera egiteko federazioen inplikazioa ezinbestekoa da.**

Federazioak bere espedienteak betetzen du, baina oraindik lan handia egin behar da emakumezkoen pala eta eskupilota sustatzeko. Eta lan serioagoa.

GURE PILOTA NESKEN TXAPELKETA Aurreko asteburuan hasi zen Gure Pilotako Sakanako XVII. Nesken Pala Txapelketa, 17. edizioa. Mankomunitatearen eta udalen babesarekin antolatzen duzue, eta lan handia egin izan duzu beti txapelketa hau ateratzeko.

Emakumezkoen pala sustatzeko eta zabaltzeko txapelketak antolatu behar dira, eta beste klubetako palistekin harremana izan behar da beraiek gure txapelketetan aritzeko. Sakanako txapelketara etortzeko desiotan egoten dira palistak. Iparraldekoak, bizkaitarrak, gipuzkoarrak, nafarrak... denetatik etorri izan dira. Aurten 65 palista inguruk hartuko dute parte, Gaztetxoan Mailan 40 inguruk, Eliteetan 6 bikotek eta Lehen Mailan 7 bikotek. Txapelketan, aurten ere, sekulako maila dago.

Urtero esaten duzu hori.

Palisten maila goraka doalako. Gure txapelketarekin maiteminduta nago. Benetan, sekulako maila dago. Bikoteak orekatzen saiatzen gara, eta nik uste dut palistak horregatik etortzen direla hain gustura, partidak oso parekatuak direlako. Gure txapelketan partida asko oso estuak izaten dira, partida borrokatuak.

Zeintzuk dira favoritoak?

Izen handiak daude, baina gero partidak jokatu behar dira. Oso bikote politak daude.

Federazioek antolatzen dituzten pala txapelketak kenduta, Sakanakoa izango da emakumezkoen paleta goman antolatzen den txapelketa onenetakoa.

Zalantzarik gabe. Txapelketa politikak daude Euskal Herrian, eta dauden bizpahiru onenen artean dago gurea, ziur.

OMENALDIAK

Etxarri Aranatzeko jokatuak Emakume Master Cup Pala Txapelketako finalietan jaso zenuen lehen omenaldia, 20 urte luzez emakumezkoen pala sustatzegatik. Silvia Maraño alkatearen eskuetatik oroigarri ederra jaso zenuen, palistak ondoan zenituela. Tartean zegoen Nafarroako Kirol Institutuko zuzendari Miguel Pozueta.

"GURE TXAPELKETA EUSKAL HERRIKO TORNEO ONENEN ARTEAN DAGO; SEKULAKO MAILA DU"

"NESKEK OSO LAGUNTZA GUTXI DUTE, ETA HORREK AMORRARAZTEN NAU"

Herritik sortutako omenaldia izan zen, palistak han zeudela, eta oso polita izan zen, egia esan. **Badakigu ez zarela halako omenaldien oso zale, baina gertukoengandik etortzen direnean, berezia izango da, ezta?**

Jakina, oso polita da, baina bihotz barrutik esaten dizut nik ez dudala omenaldirik merezi. Nik uste dut neskek merezi dutela omenaldia, palistek. Hasierak nola izan ziren kontuan hartuta, ikusita oso langileak direla, eta entrenatzeko eta lehiatzeko duten ilusioa... Beraiek merezi dute omenaldia, nik ez. Oso laguntza gutxi dute, eta horrek amorrarazten nau.

Baina zuk izugarri laguntzen diezu. Ez dago frontoi batera joatea bezalakorik hori ikusteko. Palista eta teknikari guztiak hurbiltzen zaizkizu agurtzera. Emakumezkoen palan erreferente bat zara.

Niretako hori da omenaldi politena. Joaten naizen frontoi guztietan: "Zer moduz Miel?" palista eta teknikari guztiak hurbiltzen zaizkit.

Asteartean Nafarroako Jauregian Nafarroako Zilarrezko Domina jaso zenuen, horrenbeste urtez emakumezkoen pala sustatu izanagatik.

Hori ere polita da, baina berriro diot, nik omenaldian neskek aipatuko nitzuke, euren gurasoak eta inguruan lana egiten dutenak, ez ni bakarrik.

Nori eskainiko diozu?

Lehendabizi emazteari, ni beti frontoian sartuta nagoelako. Bera ere partida askotara etorri izan da, lehenabizi ni ikustera, gero alabak ikustera eta orain ilobak ikustera. Eta geldi-geldi bilobak iritsiko dira. Bestalde, neskei eskainiko diet eta inguruan dudan talde guztiari.

Gehienetan kirolariak jasotzen dute aitortza, baina horrenbeste lan egiten duzuen teknikariak ezinbestekoak zarete eta zuek ere merezi duzue errekonozimendu hori.

Kirolariak ateratzeko atzean gu bezalako jendea behar da, zalantzarik gabe. Baina pentsa nork jaso duen urrezko domina, Aimar Olaizolak eta Juan Carlos Unzueta...

Olaizolak eta Unzueta ere zuek bezalakoren bat izango zuten alboan. Jakina. Kirolari handiak dira, profesional gisa diru asko irabazi dutenak.

Zuek ez. Zuek dirua jarri behar izan duzue, seguru.

Bai, hori da, guk poltsatik jarri (kar, kar...). Eta gustura.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 3

ALTSASU Gazte agenda: Euskararen eguna. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Udalak eta GC-ek 1800 euroko isunak ezarri dituzte kartelak jartzeagatik elkarretaratzea. 19:00etan, udaletxearen aurrean.

LARUNBATA 4

ALTSASU Gazte agenda: Euskararen eguna. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

IGANDEA 5

IRURTZUN Euskal ekitaldiak: Irurtzun kantuz trikitilariekin. 12:30ean, plazan.

ETXARRI ARANATZ Rolihlahla ipuin ilustratuaren aurkezpena **Joxe Aldasoro Jauregi eta Anaitz Igoa Goñi.** 17:30ean, kultur etxean.

ALTSASU Euskal preso eta iheslariak Euskal Herrira elkarretaratzea. 20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 6

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea. 12:00etan, udaletxearen aurrean.

ALTSASU Gazte agenda: Party gaua ikuskizuna. Doan. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

OSTIRALA 10

ALTSASU Gazte agenda: Dardo txapelketa. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

OLAZTI Xabier Solanoren eta Zigor DZren emanaldia. 23:00etan, Barandi tabernan.

LARUNBATA 11

ETXARRI ARANATZ Etorri berriendako harrera ekitaldia.

Sakanako Mankomunitateak antolatuta. 11:00etan, udaletxean.

LAKUNTZA Proletarizazioaren aurrean antolakuntza komunista GKSren jardunaldia. Hitzaldia: Zer da proletarizazioa? 12:00etan, kultur etxean.

ARBIZU Etorri berriendako harrera ekitaldia. Sakanako Mankomunitateak antolatuta. 12:30ean, udaltxean.

LAKUNTZA Proletarizazioaren aurrean antolakuntza komunista GKSren jardunaldia. Mahaingurua: Bizi eredu proletarioa. Hizlariak: Itaia, GKS, IA eta Kontseilu Sozialista. 16:00etan, kultur etxean.

ETXARRI ARANATZ Tira aurrera Panta Rhei antzerki taldearen antzezlan. 17:30ean, kultur etxean.

LAKUNTZA Proletarizazioaren aurrean antolakuntza komunista GKSren jardunaldia. Aizkolaritza erakustaldia. 18:00etan, frontoian.

ALTSASU Gazte agenda: Nor izan da? Cluedo jokoa. 18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

ALTSASU Around the world Brodas Bros konpainiaren

dantza ikuskizuna. Sarrerak agortuta. 19:00etan, lortia kultur gunean.

IRURTZUN Euskal ekitaldiak. Bertso afaria: Oihana Iguaran eta Julio Soto. Izena ematea eta ordaintzeko epea abenduaren 6a baino lehen. 21:30ean, Pikuxar elkartearen.

IGANDEA 12

LAKUNTZA The Corleone's band taldearen kontzertua. 60ko, 70ko eta 80ko hamarkadetako rock bertsoiak. Sarrerak: 3 euro. 18:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal Herrira elkarretaratzea. 20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 13

ALTSASU Pentsio duinen aldeko elkarretaratzea. 12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 14

ALTSASU Amets Arzallusen solasaldia Miñan bere liburuan oinarriturik. Itsasi AEK euskaltegiak eta Sakanako Mankomunitateak antolatuta. 09:30ean, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Jose Luis Erdoziaren Sakanako euskal hizkerak (XXI. mendeko ezkaratzean) liburuaren aurkezpena. 19:00etan, kultur etxean.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Pan de limón con semillas de amapolas gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 2: 19:00
Ostirala 3: 19:30
Igandea 5: 19:30

Érase una vez en Euskadi gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 9: 19:00
Ostirala 10: 19:00
Igandea 12: 19:30

Zutik familiarreko filmaren euskarazko emanaldia
Igandea 12: 17:00

Eiffel gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Osteguna 16: 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Entre rosas zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 2: 19:00
Ostirala 3: 19:30
Igandea 5: 19:30

Libertad zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 9: 19:00
Igandea 12: 19:30

Un espíritu burlón zineforum filmaren emanaldia
Osteguna 16: 19:00

ZORION AGURRAK



Haitz Lazkoz Ginea
Zorionak ederra!
Igandean 9 urte beteko dituzu. Egun ona pasa eta muxu pila aitatxo, Ainetz, Lizarragakuek ta amiñen partes!

GOXATU!
ZORIONDU MAITE DUZUN HORI
zorion@guaixe.eus



DN DE KOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



ESKELA

**Jesus Mari Salinas Campión**

'Pitxi'



Bidaia on, lagun!
Beti egongo zara gure bihotzetan

Zure lagunak
Altsasu

OROIGARRIA

**Dimas Arruabarrena Iraurgi**

I. urteurrena
(2020ko abenduaren 10ean hil zen)

Beti yonko za gu artien

Ebrekuek



OROIGARRIA

**Eusebio Lazkoz Razkin**

X. urteurrena

Gure ondotik joan zinen,
baina ez gure bihotzetatik.
Beti jarraituko duzu gurekin.
Maite zaitugu

Emaztea, semeak, alaba eta bilobak

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGAI

Pisua bajearekin salgai: Etxarri Aranazko Santakitz kalean. Interesatuek deitu 669 156 117 tfnora.

LANA/NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZA

Josefina Arregi Klinikan administrazio buru lanpostua betetzeko: Enpresen administrazioan lizenziatura eta hiru urteko esperientzia eskatzen dute. Informazio gehiago www.josefinaarregui.com webgunean.

IKASTAROAK

Kontatu nirekin! Txakurrekin aisialdi inklusiboa: 6-12 urte bitarteko Altsasuko haurrei zuzendua, abenduaren 27 eta 28an. Izen ematea abenduaren 20ean amaitzen da. Informazioa eta izen ematea psicologia.biakbat@gmail.com edo 646 123 768 tfnoan.

BikoTeka tailerra Iruñean: Liburu ilustratu bat nola pentsatu, idatzi, sekuentziatu, marraztu eta argitaratu daitekeen landuko da lau egun eta erdiko ikastaro trinko honetan, idazle-illustratzaileak bikoteka jarrita. Idazle eta ilustratzaileek parte hartu dezakete, bakarka zein binaka. Bakarka aurkezten direnei bikotea aurkituko diegu, posible den heinean. Parte hartzaileek ez dute zertan lan argitaraturik izan behar eta aurkezten diren hautagaien artean egile berriak lehenetsiko dira.

Parte hartzaileek euskaraz jakin behar dute. Galtzago-ri elkarteko bazkide izatea baloratuko da. 2022ko urtarrilaren 24tik 28ra, Iruñeko Kondestable Jaurregian. Izen emateko epea azaroaren 26an amaitzen da. Informazio gehiago galtzagom@galtzagom.eus emailera idatziz, 943 471 487 tfnoan edo www.galtzagom.eus web orrian.

LEHIAKETA

Iturmendiko V.Mus Txapelketa: Abenduaren 11n, larunbatean, atsaldeko 16:00etan Aritzaga Elkar-teen jokatu da. 4 Erregetara modalitatean. 32 bikote onartuko dira gehienez. Inskripzioa egunean bertan, 15:30ean, 30 euro bikoteko. Sariak: Irabazleek txapelak eta jasotakoaren %50a, bigarrenak jasotakoaren %30a eta hirugarrenak gabonetako otarra jasoko dituzte.

III. Nafarroa Saltsa Berdean Errezeta lehiaketa: Eroski produktuak CPAEN/NNPEK sareko denda ekologiko batean, prestatu errezeta bat, egiozu argazki bat eta bidali email bidez cpaen@cpaen.org helbidera produktua erosi duzun denda adierazita. Sare sozialetan ere partekatu daitezke errezeta eta argazkia, kasu horretan [@navarre-cologica](https://twitter.com/navarre-cologica) eta [#NavarraEnSalsaVerde](https://twitter.com/NavarraEnSalsaVerde) adierazi behar dira ere. Abenduaren 22ean amaitzen da epea. Sariak, zure denda ekologikoan gastatzeko: 150 euro (urrezko errezeta),

100 euro (zilarrezko errezeta) eta 50 euro (brontzeko errezeta). Lehiaketaren, denden eta jate-txeen inguruko informazio guztia <https://www.navarraecologica.org/eu/mavarra-en-salsa-verde> webgunean.

Etxarri Aranazko Udalak egoera ahulean dauden ikasleentzako dirulaguntza: Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartu ahal izateko, 2021-2022 ikasturteko neguko jardueretarako, eskabideak aurkezteko epea 2022ko urtarrilaren 20an amaitzen da.

Etxarri Aranazko Udalak entitateendako dirulaguntza deialdia: Kultur, kirol eta jendarte erakundeek eskaerak abenduaren 31ko 14:00ak arte aurkez ditzakete. Ikasturte honetan garatuko dituzten jarduerak dira dirulagunduko direnak. Oinarriak udalean bertan edo www.etxarriaranatz.eus web orrian ikus daitezke.

Irurtzungo konpartsa: Erraldoiak dantatzeko jende premia dago Irurtzunen. Interesa duenak hots egin dezala 690 335 196 (Amalia) telefono zenbakira.

Mikel Arregiri buruzko liburua honako tokietan erosi daiteke: Lakuntzan Ogi berrin, Aliproxen eta Estankoen; Etxarri Aranazko Kaxeta liburu denda eta Altsasun Arkatz liburu denda. 15 eurotan dago salgai

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburak.eus

JAIOTZAK

- **Ekiñe Baraibar Astiz**, azaroaren 17an Lakuntzan
- **Fatou Mbengue Lo**, azaroaren 26an Olaztin

HERIOTZAK

- **Jesus Ducar Rada**, azaroaren 5ean Ihabarren
- **Jose Javier Artieda Beltza**, azaroaren 24an Etxarri Aranatz
- **Jesus Mari Salinas Campión**, azaroaren 26an Altsasun
- **Miguel Morales Diez**, azaroaren 28an Altsasun
- **Martina Mendinueta Zaldua**, azaroaren 29an Arbizun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

EGURALDIA ASTEBURUAN

Osteguna, 2



Ostirala, 3



Larunbata, 4



Igandea, 5



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo.eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82€ / 96,80€ / 130,68€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



NAF. BERTSOZALE ELKARTEA

Eneko Lazkoz, txapeldunordea

Saioa Alkaiza da 2021eko Nafarroako Bertsolari txapelduna, bertsolari etxarriarrarekin buruz burukoa jokatu ondoren. Buruz burukoan puntuka eta seiko motzean aritu ziren hasieran, eta kartzelako lanarekin bukatu zuten. Alkaizak 995 puntu lortu zituen, eta Lazkozek 992. Bigarren urtez Lazkoz txapeldunordea da. Bertsolari Txapelketa Nagusirako sailkatu da.



BAZTERRETIK

IUNE TRECET OBESO

Pantailak euskaraz

Txikia nintzenez denok ikusten genituen telesailak euskaraz, *Dragoi Bola Z*, *Lehenengo musuak* edo *Parker Lewisek ez du sekula galtzen* adibidez. Nerabezaroan, *Goenkale* edo *Jaun eta jabe* izan genituen denek erreferentzia bezala.

Ikastolan, euskarazko edukie buruz hitz egiten genuen eta bizitza euskaraz egitea naturala egiten zitzaigun, gure "maitasun platonikoen" horrela egiten zutelako.

Baina egun, Sakanako haurrek ezin dute telebistan ETB3 ikusi. Ez dute haurrentzako sortutako euskarazko edukietara sarbiderik. Eta ondorioz, ez dute, nik izan nuen moduan, euskarazko erreferentierik telebistan.

Hala ere, beste eduki mota batek bereziki kezkatzen nau. Telebistak badu bere pisua, batez ere haur txikiengan, baina helduten doazen heinean, gazteek geroz eta telebista gutxiago ikusten dute eta Interneten dauden edukietan gehiago zentratzen dira. Aukera zabala aurki dezakete

sarean, beraiek erabaki dezakete zer, nor edo noiz ikusi. Gazteek nahieran ikusten dituzte telesailak streaming plataformetan, baina plataforma hauetan euskararen presentzia oso txikia da. Bideo jokoetan aritzen direnen artean ere, aukera gutxi izango dute euskaraz jolasteko, nahiz eta bakar batzuk euskaraz aurkitu.

Egia da geroz eta youtuber edo twitchlari gehiago daudela sarean, lanketa polita egiten ari dira bai #3000Twitzeko twitchlariak bai @LDraugr sakandarrak *Pilula gorria* saioan, adibidez.

Gazteak euskarazko edukiak ikustera ohitu behar dira, eta horretarako txikitatik hasi behar dira bizitza euskaraz modu naturalean egiten, eskolaz eta familiaz gain bere erreferenteek euskaraz ere egiten dutela ikasi behar dute, telebistan, streaming plataformetan eta baita Disneyko pelikuletan ere.

Horregatik, euskararen eguna hain gertu dugun honetan, Pantailak euskaraz plataformak dioen moduan, pantailak eta edukiak euskaraz behar ditugu euskara gure gazteen eta ez hain gazteen artean naturaltasunez zabal dadin. Azken egun hauetan pauso batzuk eman dira, baina gehiago etorriko direlakoan nago. Eta Simbak euskaraz hitz egiten bukatuko du.

Hegan egiteko gonbidapena

Pirritx, Porrotx eta Marimots pailazoek 'Kuikui' ikuskizuna aurkeztuko dute Irurtzunen. Euskarari heldu diote, "txorien kantuari", eta herrien nortasunari eta kulturari, beste balore batzuk ahaztu gabe. Kulturgintzan aritzen diren elkarteak omenduko dituzte ere

IRURTZUN

Pailazoek ez dute Irurtzunekin duten zitari huts egingen. Abenduaren 3an, Euskararen eta Nafarroaren egunean, Irurtzunen, Pirritx, Porrotx eta Marimotsen lan berria aurkeztea "ohitura bilakatu" dela esan du Joxemari Agirretxe Porrotx-ek: "Atzera begira ez dut gogoan noiz izan zen lehena". Aurten, aldiz, euskararen eguna zertxobait beranduago ospatuko dute, eta emanaldia abenduaren 18an izanen da, 17:00etan, Irurtzungo kiroldegian. Dagoeneko sarrerak agortu dira. Irurtzunekin "miresmen" handia dutela aitortu du pailazoak.

"Klasiko bat da. Sakanatik eta Larraundik ere jendea gerturatzen da. Topaketa eder bat da ospatzeko herri bat garela eta hizkuntza eta kultura bat daukagula. Munduan gure tokia eta begirada dugula". *Kuikui* pailazoaren ikuskizun berriaren abiapuntua, hain zuzen, hizkuntza eta kultura izan dira. "Euskaldunak izokinak gara ibaiaren korrontearen aurka saltoka. Munduan gure hizkuntzarekin eta nortasunarekin aldarrikatzen". "Izokin izate horrek" beti borrokan ibili behar izatea suposatzen duela azaldu du Porrotxek.

Hizkuntza ez da bakarrik komunikatzeko tresna bat, balioak transmititzeko bide bat da, "eta gurea euskaratik egiten da". Bi urte hauetan pandemiak "herri-gintzak bereziki" sufritzen duen egoera bat ekarri duela azaldu du Porrotx-ek: "Kulturgintza gelditu behar izan da, eta izokin bat gelditzen denean, korrontearak bere alde uniformatzailea, menpeko hartzeko hori eta boteredunaren aurrean, "txikiek atzera" egiten dutela esan du, "baina berriro indarra hartu behar dugu, bultzatu behar dugu". Horregatik, *Kuikui*-ren bidez euskarari heldu diote, "txorien



Pirritx, Porrotx eta Marimotsek 'Kuikui' ikuskizuna aurkeztuko dute Irurtzunen. UTZITAKOIA

kantuari, herrien nortasunari eta kulturari".

Pandemiak "lehendik" bizitzen eta ikusten ziren egoerak areagotu ditu. "Sekulako eraso dago euskararen eta herri txikien kontra. Are gehiago Nafarroan. Euskara bigarren mailakoa hartzea da hezkuntza arloan eta maila guztietan ere". Erasoak judizialki eta politikoki ematen dela ere aipatu du Porrotxek. "Sektore kontserbadoreak eta ultraeskuintarrak boterea hartzen ari dira".

Euskara eta baloreak

Pirritx, Porrotx eta Marimotsek hamarkada bat baino gehiago daramatzate euskaraz eta euskaratik baloreak sustatuz: "Familia eredu desberdinak, kulturartekotasuna...". Erdignuean hizkuntza eta kultura jarri nahi izan dute ikuskizun berrian, baina balioak ahaztu gabe. Hiru arlo izango ditu: Itsasoen zikin-keria eta biodibertsitatea, pertsonen askatasuna eta justizia munduan dauden harresi eta mugen kontra, eta irtenbideak. "Munduan gertatzen den horrek guztiak gure herrian ere isla du".

Ikuskizuna "hegan egiteko gonbidapena da. Besoak zabaldu,

hegoak astindu, salto egin, eta urrunera begiratu". Amets egiteko gonbidapen bat da. Ikuskizunarekin batera *Kuikui* ipuin ilustratua eta diskoa kaleratu dute pailazoek ere, elkarlanean. Miren Amurizak ipuina idatzi du, Karmela Goroño eta Irene Irurita Irrimarrak taldeko kideek ilustrazioak egin dituzte, Xabier Zalabak musika... Ipuin ilustratuaren animazioa ere sortu dute, sare sozialetan dagoena.

Ikuskizunaren amaieran Aran-zadi zientzia elkarteak sustatuko txorien habiakutzak emanen diete herritan euskararen eta kulturaren alde lan egiten duten elkartei. "Gainera Irurtzunen sekulako lana egiten ari dira. Oso gertutik ezagutzen dugu egiten ari diren lana". Irurtzun aniztasunaren isla dela esan du Porrotxek. Eskolan D ereduaren alde egindako lana eta herrigintzan Pikuxar elkarteak bezalako proiektu aurrera eramateak nabarmendu ditu. "Auzolanarekin, jende askoaren lanarekin eta diruarekin erdigunera, herriaren bihotzera, eraman dute Pikuxar". Sakanako herrian egindakoa zenbait ekimen ereduariak direla esan du Porrotxek.



Joxe Aldasoro Jauregi eta Anaitz Igoa Goñi 'Rolihlahla'-ren aurkezpena prestatzen. UTZITAKOIA

"Asmoa istorio errebelde bat islatzea zen"

JOXE ALDASORO JAUREGI ETA ANAITZ IGOA GOÑI IDAZLEA ETA ILUSTRATZAILEA

Haurrei gai baten inguruan erantzunak eman nahia izan zen 'Rolihlahla' ipuin ilustratua. Orain kaleratu dute, eta igandean aurkeztuko dute

Eneida Carreño Mundoñano /

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI ARANATZ

Baten batek album ilustratu bat zer den galdetu duela esan du Joxe Aldasoro Jauregi idazle etxarriarrak. "Halako komiki bat" dela erantzuten du, baina hori esatea "kristoren astakeria" dela aipatu du. Album ilustratu bat ipuin bat testuaren eta ilustrazioaren bidez kontatzen duen liburua da. Bi elementuek bat egiten dute. Aldasororen testuarekin eta Anaitz Igoa Goñi ilustratzaile etxarriarren irudiekin *Rolihlahla* ipuin ilustratua kaleratu dute eta igandean, abenduak 5, 17:30ean, Etxarri Aranazko kultur etxean aurkeztuko dute. Liburua dagoeneko salgai dago Irurtzungo Martxueta, Etxa-

rri Aranazko Kaxeta eta Altsa-suko Arkatz liburudendetan.

'Rolihlahla'. Zer dago izen horren atzean?

Joxe. Pertsona baten hiru izenak dira: Nelson Rolihlahla Mandela. Nelson Mandela izenez eza-gutzen dugun pertsona ospetsua. Bere istorioa haur bati kontatzen saiatu gara. Historia nahiko egoera berezian sortu zen. 2016an epaiketa izan nuen Audientzia Nacionalean eta garai hartan, eta gaur egun jarraitzen dut, Pedro Lope de Larrea Aguraingo haur eskolan lan egiten nuen. Bost urteko haurrekin lan egiten nuen eta gurasoei epaiketa neukala esan nien, eta auskalo zer gertatuko zen. Baina haurrei ere nahi nien zerbait esan. Kar-


tzelan ez daudela bakarrik lapurrak eta gaiztoak azaldu nahi nien. Nelson Mandelaz oroitu nintzen. Espetxean egon zen eta presidente izatera iritsi zen.

Gauza zen horrekin zerbait gehiago egitea, ezta?

J. Banekien Anaitz artista zela eta eman nion ea zerbait inspiratzen zion edo zerbait sortzen zion istorioak.

A. Oso gustura hartu nuen. Niretako kristoren aukera zen niri gustatzen zaidan horretan aritzeko eta Joxe lagun bezala eta bere istorioa azaltzeko aukera ematen zuenez, ilusio egin zidan. **Epaiketa 2016an izan zen, eta orduan hasi zen prozesua?**

J. Urte bat beranduago edo bidali nion Anaitzi.



A. Denboran luzatu den proiektu bat da. Aipatu zuenean ideia batzuekin hasi nintzen, baina hasiera horretan bakoitzak gure istorioekin jarraitzen genuen. Gero bai Iruñeko Bikoteka ekimena atera zela, ilustratzaile eta idazleak elkartzen dituen ikastaro bat. Ilustratzaileak ilustrazioak aurkeztu behar ditu eta idazleak bere lanak. Bikotean edo banaka aurkez zaitezke. Proiektua aurkeztu genuen, onartu ziguten, eta han istorioa gorpuzten hasi zen. Bai ilustrazio aldetik bai testu aldetik forma gehiago hartzen joan zen.

Lagundu zizuten?

J. Hamar edo hamabi bikote geunden. Irakasleak Harkaitz Cano idazlea eta Aitziber Alonso ilustratzailea ziren. Ariketa batzuk komunean egiten genituen, denak elkarrekin, eta beste une batez bikote bakoitza bere proiektua garatzen ibiltzen zen. Batzuk zerotik hasi ziren. Guk bageneukan proiektua, eta aurrera. Bost egunetan asko aurreratu genuen. Testua eta ilustrazioak nahiko definituta gelditu ziren.

A. Egitura behintzat egina gelditu zen. Aitziberren ikuspegiak asko laguntzen zuen; gaia kontuan hartuz eta nola kontatzen genuena kontuan hartuz, paisaiak, zabaltasuna, koloreekin jokatzea...

Zer kontatzen du liburuak?

J. Liburu honek irakurketa desberdinak ditu. Alde batetik, testuak berak beste mundu batera eramaten zaitu. Konbinazio asko egin daitezke. Arbasoekin

"LIBURU HONEK IRAKURKETA DESBERDINAK DITU; ARBASOEN ISTORIA, INGURUGIROA..."

lotutako istorio bat izan daiteke, ingurugiroaren zaintzarekin, beste plano batean psikologikoa izan daitekeela edo zerbait nahi duzunean gauzak egitea eta lortzea kostatzen dela, baina batzuetan arriskatu behar dela; gauzak gaizki ateratzen direla, baina ez duela esan nahi ez direla egin behar. Gure asmo nagusia istorio errebelde bat islatzea zen. Zapalkuntzaren kontrako istorio bat haurren kodi-goetara moldatuta. Espetxean ideia hor ere dago, nahiz eta espetxe hitza ez den aipatzen.

Nolakoa izan da ilustrazioen sortze prozesua?

A. Eskuz egin dago. Marraztea asko gustatzen zait, eta ez naiz oso abila digitalki. Ilustrazioaren mundua, mundu bat da. Ilustratzaile bakoitzak bere sormena dauka, bere teknika, eta gauza oso ederrak daude. Kasu honetan kolasa egin dut. Agertzen den gauzatxo bakoitza kartulina batean marraztu dut, moztu eta gero jolastu egiten nuen. Gero eskaneatu genituen. Maketazioan Olatz Aldasorok lagundu digu eta inprentaren arteko zubia izan da ere.

Igandean Etxarri Aranazko kultur etxean aurkeztuko duzue. Nolakoa izango da?

A. Aurkezpen berezia izatea nahi genuen, eta Joxeren ipuina kontatzeko eta antzezpena baliatu dugu.

J. Album ilustratua da, baina garrantzia handia ematen diogu ahozkotasanari ere. Nahi genuen haurrak albuma eramateaz gain, eramaten badute, gutxienez istorio bat eramatea etxera. Guz-tira, hiru ipuin kontatuko ditugu: Afrikako bi herri ipuin girotzeko, eta azkenekoa *Rolihlahla* istorioa izango da.

A. Ilustrazioak ere bertan jarriko ditugu ikusteko nola egin den; prozesua ikusteko.

"Azoka izan zenaren berri jasota utzi dugu"

Irurtzango barazki gunearen eskuineko eta atzeko aldean baranda bat jarri du Irurtzango Udalak eta hura edertzeko Brun forjariengana jo zuen. Garai bateko Irurtzango azoka zena islatzen duten 50 bat irudi jarri dituzte

Alfredo Alvaro Igoa IRURTZUN

1 Zergatik jarri zuen udalak baranda?

Irurtzundarrek 2015eko parte hartze aurrekontuen bidez karpa bat erostea erabaki zuten, estalpean jarduerak egin ahal izateko. Barazki gunean jarri zuen udalak karpa. Eta eremua hesiz itxita zegoen. Pikuxar euskal txokoaren egitasmoarekin San Martin kaletik Piku plazara pasabidea egitea onartu zen. Udalak lanak egin zituen eta ingurua txukunago uzteko baranda jarri zuen barazki gunearen bueltan. Hura itxiz.

2 Nolako baranda jarri zuen?

Baranda industrial bat da, 29 bat metro luze dituen. Barazki gunearen partzela ixten du. Piku plazarako pasabidetik eta plazatik ikusten da.

3 Eta zergatik jo zuen Irurtzango Udalak zuengana?

Sanmartingo artisau eta azokarekin dugun erlazioagatik. Barazki gunea garai bateko azoka egunetan barazkiak saltzen ziren tokia zen. Azoka izan zenaren berri jasota utzi nahi zuen barandan.



Eduardo Brun Irisarri Irurtzango artisau azokan.

4 Irurtzundarren ideia entzun eta ondoren, zer?

Irurtzango Udalarekin hitz egin genuen eta zerbait berezia egin zitekeela aipatu genien.

5 Eta zer da egin duzuen zerbait berezi hori?

Berrogeita hamar bat irudi sortu ditugu, eta barandaren goiko ertzeko zerrendan jarri ditugu.

6 Zer nolako irudiak ikus daitezke barandan?

Gauza bereziak daude, ez nik ez udalekoek ere ez genekizkienak. Esaterako, zer zen ohikoa jatea, ohiko lanbideak, ekartzen zuten azienda, herri kirolen inguruko pixka bat, Betelu eta Lekunberritik etortzen zen diligentsia, Plazaolaren Irurtzango tren geltokia, hiltegiaren eraikina... Azokaren berri izateko modu eder bat da.

7 Nolaz lortu duzue ez zenekizkiten informazio horiek?

Adinekoengandik jaso ditugu. Nik esaterako, zizeiluarena ez nuen ideiarik ere (bankua, bizkarralde altukoa, erdialdean mahaiarena egiten zuen eta jaitsi eta igo egiten zen ohola zuen). Paretan zulo bat zegoen eta haren bidez emakumezkoek mutilak ikusten zituzten. Eta horrela erabakitzen zuten batekin edo bestearekin hitz egitea. Bikoteak egiten ziren.

8 Eta halakoak nola eraman dituzte irudietara?

Korapilatsua izan da. Azoka zena nola islatu pentsatzeak lana du. Ez da soilik kolpeak ematea, diseinatzea ere bada. Garagartzaroan hasi ginen honen burua berotzen: zein ma-

razki, nola islatzen dut hau jendea nahastu ez dadin... Esaterako, idien 50 argazki ikusi genituen. Eta egokienarekin jo arte baztertzen joan ginen. Barandako neurriekin bat egiten duen irudi egokia izan behar zuen.

9 Geroz, berrogeita hamarren bat irudi egiteko beta beharko zenuen, ezta?

Oporren hilabetea kenduta, garagartzarotik lanean ari ginen. Lan fisikoa egiten ez bagenuen, ordenagailu aurreko lanketan ari ginen, begiratzen, ikertzen... Irudi egokirik ez bazegoen, geuk marraztu behar genituen. Gero inprimatu eta moztu. Nahaspila ederra! Zer jarri eta nola egin pentsatzen denbora gehiago eman dugu egiten baino. Zatika egina dago. Zati bakoitzaren marrazkia egin eta udalari aurkezten genion. Eta oniritzia jaso ondoren egiten genituen irudiak: inprimatu, moztu, egin behar zen tamainara pasa, moztu, txapara pasa, moztu eta limatu. Irailaren 23rako jarrita zeuden. Udalak pazientzia izan du. Gudan konfiantza zuen.

10 Zer material erabili duzue?

Hiru milimetroko txapa. Zahartze kutsua emateko gainazalean oxido patina eman diogu. Baranda beltzarekin kontrastea egin eta irudiak gehiago nabarmendu daitezten.

11 Pozik egindako lanarekin?

Txukun gelditu da. Udalak QR kode bidez informazioa jasotzeko ikurra jarriko du. Haren bidez irurtzundarrek eta bisitariak azalpenak jasotzeko aukera izanen dute

ILUSTRAZIOAK

egiten ditugu

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus | Fero plaza, 23-1. Altasu

